



GEROA PAPEREAN

Hiri-antolamendurako Plan Nagusiari hasierako onarpena eman diote **20**



UROLA Autoeskola

Bustinzuriko Errebala, 3 atzea
Tel. 943 81 26 66 - 20730 AZPEITIA
www.urolaautoeskola.com

Adr eta Cap kurtsoak
Gidabaimen guztiak
Gidabaimena euskaraz
ateratzeko aukera

ONDO PASAU SANINAZIYUEK

Udako promozioa 2012

Ondo pasatu saninazizuek
eta andramaxekek!



W 3240 LW garbigailua

- 1-6 kg arteko altzairu erdoilezineko Softtronic tanbor eskusiboa.
- Zentrifugazioa: 400-1400 erreboluzio minutuko.
- Bukatzeko falta den denbora adierazten du.
- Etiketa energetikoaren arabera sailkapena: A+ A B

Berezko prezioa (zergak barne) **1.095,09 €**



Uda garaiko prezio gomendatua*

799 €



T 8402 C LW lehorgailua

- Kondentsazio bidezko lehorgailu elektronikoa
- 1-6 kg arteko altzairu erdoilezineko Softtronic tanbor eskusiboa.
- Energia aurrezteko Perfect dry lehorketa sistema.
- Etiketa energetikoaren arabera sailkapena: B

Berezko prezioa (zergak barne) **949,09 €**



Uda garaiko prezio gomendatua*

799 €



G 4100 SC Ontzi garbigailua

- Mahai tresnertzat bandeja eskusiboa
- 6 garbiketa programa
- Ahalmena: 14 zerbitzu normalizatu.
- Zarata maila txikia, 48 dB(A) re1pW (DIN EN 607043ren arabera)

Berezko prezioa (zergak barne) **830,09 €**



Uda garaiko prezio gomendatua*

599 €



H 4314 B ED/C1st

- Arrastoen aurkako "CleanSteel" altzairu erdoilezin berria.
- Patentaturiko PerfectClean barrualdea.
- 8 funtzio
- 56 litroko barru edukiera.
- Atera daitezken gida teleskopikoak.
- 3 kristaleko CleanGlass atea (aurre hotza)
- Etiketa energetikoaren arabera sailkapena: A

Berezko prezioa (zergak barne) **769,05 €**



Uda garaiko prezio gomendatua*

699 €



S 4212 Aspiragailua

- 2.000 W.ko potentzia maximoa
- Air Clean iragazkia
- Hautsa jasotzeko 3,5 litroko HyClean F/J/M poltsa
- Zoru mota denentzako SBD 450 eskuila
- SILENCE motako isolatzaile akustikoa
- Kolorea: Gorri Mangoa

Berezko prezioa (zergak barne) **195,76 €**



Uda garaiko prezio gomendatua*

159 €

Miele banatzaile ofiziala:

MILAR LARRAMENDI

Milar Larramendi
Julio Urkijo, 16
20720 Azkoitia-Gipuzkoa
Tel.: 943 851 897

Miele
SIEMPRE MEJOR

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
(Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
uztarrria@uztarrria.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 142.a (2012ko abuztua)
Urtea. XIII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685 730792 /
oalegria@uztarrria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hileroko
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Mailo Oiarzabal
Web orrialdea.
www.uztarrria.com

Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak (erakunde publikoak)



Gipuzkoako Foru Aldundia



azpeitia udala

Uztarririk Bai Euskarari

Oharra. Uztarrria Komunikazio Taldeak ez du bere gain hartzen herri aldizkariaren adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik



2012KO ABUZTUKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||||||



iritzia

Inkesta. Udako oporretan irakurriko al duzu libururik? **13**

mamia

Alaitz Olaizola. Uztarrriaren egungo egoerari eta aurrera begirako asmoei errepasoa egin die erredakzio kontseiluko buruak **04**

Klik! Gozogintzan artisauek, etxeko berezitasuna diren egañaneko inazioen errezeta, argazkitan **16**
Triatletak. Gero eta azpeitiar gehiagok egiten du triatloia; herrian talderik ez eta Azkoitikoan dabilta **24**

jakiteko


Meseta torila. Garai batean zuen indarrik ez du gaur egun usadio horrek **34**



egin zaitez bazkide Uztarrrian

☎ 943 15 03 58

Herri aldizkariak gain, Uztarrriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.060 bazkide **30** euro dira urtean.
gara dagoeneko Uztarrrian; 126.540 euroko aurrekontua du eskerrik asko denei.
Uztarrria 2012. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra'

ALAITZ OLAIZOLA

Uztarria Komunikazio Taldearen lehendakaria

“Bazkiderik gabe ezin dugu aurrera egin”

Uztarria Komunikazio Taldearen gaur egungo egoerari eta aurrera begirako asmoei errepaso egin die erredakzio kontseiluko buruak. 📧📞 Ainitze Agirrezabala

Uztarria Komunikazio Taldearen lehendakari kargua 2009. urteko maiatzean hartu zuen Alaitz Olaizolak, Laxaro Azkunek erreleboa pasatu eta gero. Komunikazioaren arloan bazuen eskarmentua baina kolaboratzaile edo iritzi-egile bezala. Uztarrarian bestelako eginkizunetan dabil.

Zer-nolako funtzionamendua du Uztarriak?

Gaur egun Uztarriak lau langile ditu; egun osoko lanaldian bat eta gainontzeko hiruak egun erdira. Lanaldi osokoa aldizkaria kudeatzeaz arduratzen da; egun erdiko batek webgunea elikatzen du; bigarrenak webgunean eta aldizkarian dihardu, erdi bana; eta hirugarrena publizitatea eta

diru-kontuez arduratzen da. Lanalde horrez gain, erredakzio kontseilua dugu. Hilean behin elkar-ten gara, eta proiektuaren jarraipena egin, helburu orokorrak zehaztu eta hainbat gairen inguruko erabaki garrantzitsuenak bertan hartzen ditugu. Une honetan, zazpi lagun gaude, baina herritar guztiek atek zabalik dituzte, bertako partaide izan eta proiektuan inplikatu eta laguntzeko. Horrez gain, 20 lagun inguruko kolaboratzaile talde bat dugu aldizkarian nahiz webgunean ekarpenak egiten.

Proiektua finantzatzeko zer bide dituzue?

Uztarriak 2012rako 126.541 euroko aurrekontua du eta hori amortizatzeke bi motatako sarre-

||| DATUAK |||

||| **Jaio.** 1975eko urtarrilak 8.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizitokia.** Azpeitia. ||| **Lanbidea.** Haur Hezkuntza diplomatu da, baina berak dioen moduan “ofizio askotariko emakumea”.

rak ditugu; propioak eta diru-laguntza publikoak. Propioetan bazkideztatik ia 30.000 euro jasotzen dugu, urtean; publizitate-tik 20.000 eurotik gora eta autofinantzazioa igotzeko ahaleginean Frantziako tourraren inguruko pourra eta saninazioetan tonbola jartzen ditugu. Esfortzu berezia egitea eskatzen dute azken bi horiek, baina etekina lortzen dugu eta kaleko presentzia irabazi.

Bazkideak, beraz, zuen proiektuan zutabe garrantzitsua dira.

Bai, horrela da. 1.000 bazkide inguru ditu Uztarriak, tokiko hedabideetan bazkide kopuru handiena dugu. Horretatik, ia 30.000 euro jasotzen ditu Uztarriak, aurrekontuaren %21,33. Bazkiderik gabe Uztarriak ezingo luke aurrera egin, eta eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei. Urtean 30 euro ordaintzen da bazkideztatik eta denon laguntza beharrezkoa da uztarriak aurrera egiteko, krisiak Uztarria ere kolpatu baitu.

Eta, diru-laguntza publikoei dagokienez, zer?

Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak laguntzen dute Uztarria. Guztira Udalak ematen du laguntza handiena (2012rako 34.046 euro) eta nahiz eta krisia medio laguntza



izoztua izan, benetan eskertu nahi diegu. Foru Alduntitik eta Jaurritatik jasotzen dugu diru kopurua urtez urte behera joan da, urte gutxian %25-30 gutxitu zaigularik. Beraz, diru sarrerak gutxituz doaz eta prezioak gora (irailean BEZa berriro igoko dute). Erakunde publikoen finantzazioa % 45,47koa da eta Uztarriak %54,52ko finantzaketa propioa du.

Udalean EAJk diru-laguntzaren kontra bozkatu zuen. Zer iruditu zaizkizue haiek emandako argudioak?

Gure komunikabideetan iritzi guztiek kabida duten bezalaxe, guk iritzi guztiak errespetatzen ditugu. EAJk Udalaren gastuak nondik murriztu behar diren pentsatzerakoan ildo horri eustea ere errespetagarria da, gu ados egon ez arren. Baina Uztarria "komodidadean erori" dela esaten dutenean, oinarririk eta informaziorik gabe ari dira, balorazio subjektiboa da guztiz. Gehiago edo gutxiago asmatuko du Uztarriak; asko dugu hobetzeko, dudarik gabe; baina komodidadetik oso urruti bizi da Uztarria, bai eguneroko lanean eta bai epe ertain edo luzera begirakoan.

Aurten webgune berritua estreinatuta, zer balorazio egiten duzue?

Oso balorazio positiboa egiten dugu. Webgunea zaharkituta zegoen, eta berritzea behar zuen, gaur eguneko Interneteko joerara egokitzeko. Webgunea sinplifikatzea nahi genuen, bisualagoa izatea; esaterako, argazki bil-

dumak. Era berean, anonimotasunetik egiten diren ekarpenetik haratago norbanakoek izenabizenekin sinatuta edo eragileek ere beren ahotsa izatea genuen helburu. Izan ere, epe luzerako Uztarriak duen erronka nagusia da anonimotasunarekin bukatzea. Taldeak egoki ari dira komunitatean parte hartzen, baina norbanakoek ekarpenei beste bultzada bat eman beharra ikusten dugu.

Webguneak zer harrera du herritarren aldetik?

Ikaragarria. Lehenaz gain, ataria berriro zenetik bisita kopurua nabarmen hazi da. Sare sozialen bidez ere sarrerak areagotu dira. Esaterako, aurtengo lehen sei hilekoan 420.000 bisita izan ditu atariak; eta astegunetan, batz bestea, 3.000 sarrera, egunean. Bai webguneak eta bai aldizkariak erreferentzialtasun handia dute herrian.

Zuen proiektuari dagokionean, aurrera begirako aldaketarik aurreikusten al duzue?

Webgunea berrituta, orain epe motzera aldizkaria produktu bezala hobetzeko, aldaketa batzuk egitea aurreikusten dugu. Atal batzuk zaharkituta geratu dira, eta haien lekuan beste batzuei egingo diegu lekua. Datozen hila-beteetan ikusiko dira hainbat aldaketa.

Eta aldaketa sakonagorik?

Ekonomia krisiaz gain, komunikabideen esparrua krisi propioa ari da pairatzen. Epe ertainera arlo honetan sekulako aldaketak egongo dira, teknologia berrien eraginez. Euskal Herriko tokiko hedabideak TOKIKOM-en elkar-tu gara datozen erronka berriei denok batera aurre egiteko. Taldearen helburua euskal kontsumitzaileei zerbitzu integrala eskaintzea da, Interneteko, papereko eta ikus-entzunezko euskarrietan, alegia. Horretarako ezinbestekoa zaigu elkar hartuta, denok batera lana egitea, sinergiak aprobetxatuz.*

“webguneak eta aldizkariak herrian erreferentzialtasun handia dute”

“Euskal Herriko tokiko hedabideok elkar hartuta lana egin behar du”

Txikia bezain gertukoa

U

dako oporrak hartzeko garaia dator, urte guztia lanean jardun dutenek merezitako deskantsua hartzeko momentua. Baina azken asteetan Espainiako gobernuak proposatu duen komertzioen inguruko araudi berriak batzuen oporrak kolokan jarri ditu. Urte guztian eta asteke egun guztietan komertzioak irekitzeko aukera eman du gobernuak. Iada badira kexatu diren batzuk, komertzio txikiak arduradunak nagusiki. Aldiz, komertzio handien arduradunak pozik agertu dira ekimenarekin. Betiko istorioa errepikatzen da, David Goliath-en aurka bere eskubideak aldarrikatuz.

Azpeitia beti izan da bere komertzioaz arrot agertu den herria. Eta ez da gutxiagorako. Eskualdeko hiriburu bezala beti izan ditu era askotako dendak, herriko eta inguruko beharrak asebetetzeaz arduratu direnak. Beraiei zor diegu gure herria, eta batez ere Alde Zaharra, gune bizi bat bezala eustea. Halere, ukazina da saltoki txiki hauek kompetentzia bortitzari aurre egin behar diotela, batik bat Donostia aldeko gune handienek egiten dietenari. Beraiek ezartzen dituzten prezioei ezin diete aurre egin herriko komertzioek eta garbi dago prezioen borroka galduta dutela.

Beraiek ere jakitun dira horretaz eta azken urteetan ekimen desberdinak abian jarri dituzte beraien izaera propioa aldarrikatzeko. Beraien elkarteak sortu zuten jada urte asko eta bezeroei beraien fideltasuna eskertzeko sariak ere martxan jarrita daude. Beraiek ni baino hobeto dakite herriko bezeroei emantiko arreta eta eskainitako produktuen kalitatea direla beraien bizi iraupena bermatzeko bi arma boteretsuenak.

Espainiako gobernuaren ekimenak liberalismo bortitzaren beste erakusgarri bat besterik ez dira. Nahiz eta 300.000 lanpostu sortuko direla aurreikusitako ez da ezer aipatzen komertzio handietako lanpostu berri horien kalitateari buruz. Langilearen esplotazioa axola ez zaien gazaben eskuetan uzten dituzte



markel mendizabal

Komertzio txikiak eskaintzen duten gertutasuna eta kalitatea aldarrikatu behar dira

langile horiek, gehienak gainera prestakuntza baxuko langileak direlarik.

Herriko denden balio erantsia

Espainiako gobernuak bere komertzio eredu garbi aditzera eman duen une honetan garaia da beste erakunde publikoetatik gure herrietako komertzio txikiak eskubideak defendatzeko. Merkatu askatasuna dogma bilakatu den ekonomia honetan ezinbestekoa da beraien eskubideak eta bizi iraupena bermatu dezaketeneurriak hartzea. Komertzio txikiak eskaintzen duten gertutasuna eta kalitatea aldarrikatu behar dira eta ahalik eta neurri zehatzenak hartu beraien lana errazteko. Gure herrian aspaldian asko eta asko dira itxi beharra izan duten komertzioak eta bada garaia beraien aldeko ekimenak gauzatzeko.

Herriko ekonomiaren ardatzetako bat diren unetik ulertezina da beste aldera begiratzea. Eta herritar bezala ere denok egin dezakegu zerbait beraien gure

herriko paisaiako zati garrantzitsu izaten jarraitzeko. Orain hartu dezazuela denok merezitako deskantsua. Ah, eta ondo pasa herriko festak!*



ondo pasau saninaziyuek!

1.solairuan gaude



egongelak

Bihurtu zure egongela txoko eroso eta atsegin bat



urrategideko

altzariak & sukaldeak

cm
círculo
muebles

Arretxe Kalea 9 - 1. Solairua
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)
Telf. 943 85 72 44 · Fax. 943 85 13 14
urrategideko@urrategi.eu
www.mueblesurrategi.es

(auto) kritika

Oraindik ezin sinetsita nabil. Amestu egin izan banu bezala. Ezin sinetsi hain baldarra izan daitekeen inor. Ezin zait buruan sartu. Ezin ulertu zeini otu zaizkion burutazio horiek. Ezin ulertu nola plaza-ratu dezaketen hori.

Edonor da kritikak egiteko libre. Aske nahi duena esateko, eta esaten duena sinesteko. Baina zenbaitek, duten karguagatik, esaten eta egiten dutenean eredu izan beharko luke. Edo hori lortzea izan beharko luke helburu. Hau da, bozka ematen diotenen eredu izatea beharko lukete buruan.

Bai, azken asteotan hautsak harrotu ditu gure etxeetako buzoetara iritsi den aldizkari-txo batek. Bai Azpeitian eta baita inguruko herrietan ere. Eta ez juxtu egindakoa eredu-garri delako. Jaso ditu kritikak ateratako aldizkari-txoak. Kritikak. Ugari.

Dena ez da zilegi

Zilegi du oposizioak Udal Gobernuak kritikatzea. Bere egin beharretako bat hori dela esango nuke. Baina kritika eraikitzaileak, arrazoiengan oinarritutakoak, datuak eskuan hartuta egin behar dira. Ez du balio taxuzko arrazoirik gabeko lau tentelkeria egiazat saltzeak. Gezur bat mila aldiz errepikatuta ere, ez baita egi bihurtzen. Azpeitiko Udal Gobernuak, aurrekoek eta ondorengoek egingo duten bezala, gauza batzuk ondo egingo ditu, beste batzuk okerrago, eta zilegi da gus-tatzen zaiguna edo ez zaiguna adieraztea.

Txosna=elkarlana

Gazte naizen aldetik EAJko udal zinegotziek aipatzen dituzten orokorkeria horiekin ez naiz identifikatzen. Nik herrian gazte aktibo eta langile asko ere ikusten ditut. Ni ere ardura-tzen naute gaztetxo zein ez hain gaztetxoek kontsumo bide batzuek, baina guztion ardura izango da hori aldatzen saiatzea.

Txosna erraldoia omen da Azpeitia. Dudak ditut ea hori idatzi dutenek txosnek nola fun-



|||ihintza agirretxe|||

|||Jaso ditut kritikak, eta txoko honek ere autokritika egiteko balio izan dit

tzionatzen duten ideiarik ba ote duten. Txosnak, auzolanean funtzionatzen dute, interes pertsonalik gabe. Interes puntu komunetan alde dirua biltzeko egiten dute saninazioetan lan herriko gazteek. Baina, horientzat, agian zailegia hori ulertzea. Elkarlana, auzolana.

Egun gutxi barru festak egingo du bor-bor herrian. Eta gazteak eredu-garri izango dira. Beste behin ere, horiek egindako lana medio, festa parte hartzaileak izango ditugu herrian.

Erraza da besteen kontura gezurak asmatzea, besteei kritikatzeko. Baina zein zaila egiten zaigun kritikak onartu eta autokritika egitea. EAJkoei hurrengo aldizkarian autokritika egitea aholkatzen diet. Pentsa dezatela azken urtean zer egin duten Azpeitiaren alde. Zenbat aldiz bildu diren herritarrekin, zenbat eskari egin dituzten herritarren alde.

Beste bat arte

Batzuetan gehiago asmatu dut, beste batzuetan baino. Batzuetan esan nahi bezala azaltzen ez dut asmatu, eta beste batzuetan esan nahi nuen dena ezin sartu. Jaso ditut kritikak, eta txoko honek ere autokritika egiteko balio izan dit. Denboratxo batez Uztarriak utzitako tarte hau uzteko ordua ere iritsi delakoan nago. Beraz, beste bat arte guztioi!*



Xanti.R

ARANTXA ORUEZABAL

Kiruri jatetxea

“Bezeroentzako zerbitzua hobetzeko hartu genuen parte programan”



Compromiso | Konpromisoa
a Calidad Turística | Kalitate Turistikoarekin

Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromezu Diploma daukate 507 establezimenduk eta, urte amaieran 800 izango dira. Arlo horretan Praktika egokien programaren helburua zerbitzuen kudeaketa hobetzea da.

Aldi berean, bereziki negozio txikiei zuzenduriko programa da, Kalitate Turistikoaren Q-a ziurtagiriak baino exijentzia maila bajuagoa du, baina epe luzerako konpromezu batekin. “Kalitate turistikoarekin konpromezua” ezaugarri-bereizgarriak formazio konpromezua errekonozitzen du eta dedikazio eta zehaztasuna establezimenduen kudeaketa kalitatearen hobekuntza planen bidez. Bere helburu nagusia bezeroarekiko zerbitzuan hobekuntza etengabea da.

Zeintzuk izan ziren programa horretan parte hartzeko arrazoiak?

Batez ere, bezeroentzako zerbitzua hobetzeko hartu genuen parte programan. Orokorrean hobetzeko ere bai. Lana ematen du, baina Iraurgi Lantzenekoe eta laguntzen dute, eta merezi du esfortzua egiteak gero onurak lortzeko. Hasieran, gehiago kostatzen da, baina behin martxa hartuta, gauzak hobeto egiten dira eta hobekuntzak datoz.

Zein abantaila ekarri dizue diplomak?

Onurak ekarri dizkigu. Barne hobekuntzan, batez ere. Kudeaketa eta azpiegituretan ere bai. Antolakuntzarako eta egin beharrekoak hobeto egiteko balio izan digu. Kanpora begira, egia esan, ez dakit jendearentzat hainbesteko garrantzia duen diplomak.

Hori bai, gu lehenagotik ere hainbat programatan geunden sartuta, jatetxe handia da eta. Nolabait esateko, errazago egin zaigu, gauza asko eginda genituelako aurretik. Dena dela, Iraurgi Lantzenekoe laguntzen dute. **Kalitate Turistikoaren Diplomak zure erakunde ahalbidetu al du?**

Izena badaukagu, egia esan, eta bezero berriak erakartzeko balio izan duenik ez dugu antzeman. Baina, kanpora begira, leku gehiagotan agertzen da jatetxea. Guk normalean bezero berdinekin edo antzekoekin egiten dugu lana, eta horiek ez dute aldaketarik antzeman dutenik esan. Zerbait egingo zuen diploma edukitzeak, dudarik ez daukat;

batez ere, kanpoko jendeari dagokionez.

Landutako eskumetatik zeintzuk azpimarratuko zenituzke?

Inkestak, bat esatekotan. Horrek laguntzen du nola goazen eta egin duguna nola egin dugun jakiten. Hala, zerbitzu batzuk ala besteak moldatzen dituzu emaitzen arabera, eta orokorrean egiten dituzu hobekuntzak. Eskarira moldatzen zara, beharraren arabera. Bestalde, hobekuntza plana aipatuko nuke; plana martxan jarrita gehiago kontrolatzen da eta.

Zuen jatetxean kalitatearen kultura bultzatzeko, zein aldaketa egin dituzue?

Ez dugu aldaketa handirik egin, baina irisgarritasunari dagokionez egin ditugu nabarmenenak. Irisgarritasuna hobetzea beharrezkoa zen. Horrez gain, egin beharreko gauza guztiak taldean egiten ditugu orain, eta horrek prozesua hobetzen du. Taldean koordinatuta, hobeto funtzionatzen du guztiak.



Turismo arloko profesionali gomendatuko al zenieke Kalitate Turistikoaren Konpromisoa Diploma?

Bai horixe. Hobetzen laguntzen du, eta orokorrean hobekuntzat dakartzki diplomak. Jendeak laguntzen dizu diploma lortu bidean egin beharrekoak egiten. Ez dute ikastaroa egiteko esan, eta bizkarra ematen. Edozein unetan daude laguntzeko prest, eta hori eskertu egiten da.

Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorra izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:

- Jardunbide egokirako programak: helburua enpresarioren “profesionalizazioa” eta jomuga-konfiantzia sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 507 establezimendu daude.

- Kalitate Turistikoaren Q-a programa: bezeroen itxaropenak betetzea eta asebetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 268 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a bereizgarria.

- EFQM Bikaintasun eredu: erakunde kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Eredu honetan parte hartzen diharduten 14 establezimendu daude Euskadin.

Jar ezazu Kalitate Turistikoarekin Konpromisoa bereizgarria zure establezimenduan!

94 607 75 94

www.basquetour.net / info@basquetour.net

||| HIZKUNTZ ESKUBIDEAK |||



Iñaki Errazkin.

||| **ESANA DAGO** |||

||| “Ahalik eta parte hartze eta adostasun handienarekin, gure programarekin jarraituko dugu”

IÑAKI ERRAZKIN
Gipuzkoako
Ingurumen diputatua

||| “Aurten Itsasik 35. urte betetzen dituela-eta, sortu zenetik gaur arteko lotura irudikatu nahi izan dugu. Sorrerako jenderik ez da gelditzen taldean, beste batzuk gaude orain, baina haiek sortutakoari lotuta”

NEREA ZABALA
Itsasiko kidea




GORA. Euskara, osasunarentzat onena.

Eguzkia neurriz gain hartzeak osasunean kalte egiten du; euskara hitzetik-hortzera erabiltzeak, berriz, bizitza luzatu. Beraz, badakizu... astindu euskara! **Uztarria**



BEHERA. Digestioa mozteko ere!

Lomo, queso, bacon, jamon... hau marka! Ez, ez da Ermuko taberna bateko ogitartekoen zerrenda. Herritar batek Azpeitian ateratako argazkia da. **Uztarria***



"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO
MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

aizpuru@aizpuru.net

Betaurreko baikorrak



txetxu urbieta

Bizi garen mundualdi honetako ezaugarrietako bat abiadura da. Dena, eta dena diodanean dena da, ziztu bizian doa, azkar. Presaka bizi gara eta bizia presaka doa.

Oraina, iragan zaharra da eta etorkizuna, bizi aurretik, erretzen hasita gaude. Egunean egunekoarekin bizitzera behartu gaituzte baina egunean eguneko antolatzerakoan zer den gaur, zer den atzo eta zer den bihar bereiztea lan nekeza bihurtu zaigu.

Uztarría badoa oporretara eta uztarrí berean lotuta gu ere bai. Bueltatzen garenean zer izango dugun orain aurreratzea ezinezkoa da. Goazen bidetik arrisku saria mila puntutik gora ibiliko da, inoiz langile izan nahi izan ez dutenak lan bila jarraitu beharko dute, greba eta mobilizazioak hitzetik hortzera eta kalez kale nagusi izango dira. Eta ez harritu, Montanierren dimisioa eskatuz ere Anoetan ohiuak entzutea.

Aurrera begira, opor osteari begira, betaurreko baikorrekin begiratu nahi nuke.

Poltsikoak zulatuta izango ditugu baina nortasunean, gizatasunean, elkar laguntzan, urteetan atzera egin duguna ahaztu eta aurrera urrats bat edo beste emango dugula pentsatu nahi dut. Gure aurrekoak gutxiagorekin zoriontsu izan baziren, guk ere gutxiagorekin zoriontsu izateko borrokatu behar dugu. Balioa ahaztu eta baloreak berreskuratu. Filosofatzen hasi naiz, malo, beraz zu ahozabalka hasi baino lehen banoa oporretara. Itzultzeko asmotan. Ahal den neurrian, ondo pasatu.✘

IKUSTEKOA!



▲ GEZURTOKIKO LIBURUAK.

Uda partean irakurtzeko asti gehiago hartzen dutela diote askok. Hori pentsatuta ala ez, Urrestillan uda honetan liburu-azoka partikularra antolatu dute, behintzat. Gezurtokiaren ondoan, Petraneko dendaren aurrean, herritar batek utzitako liburuak aukeran daude, askotarikoak, nahi duenaren eskura. Aukeratu, hartu eta leitu, debalde da eta. 📖📧 Mailo Oiarzabal✘

UZTAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Gazta zati bat

FILMA. Autodeterminazioaren aldeko aldarrikapen soil batetik haratago doa, eta pentsamolde ezberdineko herritar soilak abiatzen duten prozesu interesgarria bilzen du. Hor dago gakoa. Herritarren partaidetza aktiboa, autodeterminazio eskubidea lortzeko prozesuaren oinarriko sostengua bilakatu, eta herriaren etorkizunaren inguruan hausnartu, eta izan nahi duguna aukeratzeko tresnak sortzen joatea.



izaskun egiguren



Toxikoak

INTSUMISIOA. Espainiatik indarrez ezarri nahi zaizkigun murrizketek euskal herritarren oinarriko eskubideen gainbehera dakar. Lehen ere, intsumisioa eskubideak defendatzeko tresna izan da. Herritar gehienon askatasuna eta eskubide sozialak bermatzeko tresna izan daiteke.



Protokoloa

ERAKUNDEEN KONPROMISOA FINKATUTA. Uztailaren 19an, "Genero indarkeriaren eta sexu erasoen biktima diren emakumei arreta hobea emateko asmoz, Erakundeen arteko I. Protokoloa" sinatu da Azpeitian. Udalak bultzatu, eta, bere diseinuan, erakunde ezberdi-

nen parte hartzea bildu duen protokoloa da. Honela, erakundeen konpromisoak finkatuta geratu dira. Indarkeria matxistarekin amaitzeko pausoak ematea guztion esku dago, ordea. Pauso sendoak emanez, indarkeria sexistarekin bukatzea lortuko dugulako.✘

INKESTA

udako oporretan irakurtzen al duzu Libururik?

Ainitze Agirrezabala

JULEN EIZMENDI

11 urte



"Ez dut ohiturarik. Egunkaria bai, irakurtzen dut, tarteka, kirol saila.

Liburua irakurtzea baino nahiago dut lagunekin jolastu. Irakurri dudak azkena *Cuatro años, sei meses y tres días después* izan da, eskolan behartu gintuzten irakurtzera".

NEREA EGIUREN

6 urte



"Bai, ipuin laburrak irakurriko ditut, euskaraz. Gehien-

gehiena *Hiru txerri txoak* gustatzen zait. Etxean hainbat liburu ditugu eta arratsaldeak leitzeko aprobetxatuko ditut".

ASIER OLAZABAL

11 urte



"*Viaje al tiempo II* liburua ari naiz irakurtzen, baina oraindik ez dut

leitzea bukatu. Interesgarria da oso. Geronimo Stilton elkarteko hainbat liburu irakurri izan dut eta klub interesgarria da".

IKER EGIUREN

9 urte



"Ez dakit irakurriko dudak, ez zait asko gustatzen

irakurtzea. Halere, gaztelerako irakasleak dozena bat testu eman dizkigu leitu eta ondoren galdera batzuk erantzuteko".

Pertsonen arteko lotura

Loiolaruntz abiatzean, Amatasunaren irudiari behin baino gehiagotan erreparatu eta sentimendu, pentsamendu eta eskarmentu ezberdinak berpiztu eta sentiarazi izan dizkigu: goxotasuna, maitasuna, gertutasuna, segurtasuna... Haurtzaroan bizitako hainbat emozio eta sentimendu berpizten dizkigu "apego/lotura" hitz horren eraikitzaileak. Atxikimendu hori pertsonen artean sortzen den lotura sendoa da. Normalean, haurrak gurasoekin edo zaintzailearekin eraikitzen duen erlazio sendoa da.

Hainbat profesionalak dioten legez, gizakia 0-3 urte bitartean eraikitzen da. Gizakiaren memoriak argazki kamera batek bezala funtzionatzen du. Lehen hiru urtetan irekita egoten da, gero itxi egiten da, eta argazki hori pertsonaren bizitza osoan mantentzen da. Esan daiteke, aurreneko hiru urtetan bizitakoaren arabera funtzionatuko duzula bizitzan. Gurasoekin eraikitzen duzun erlazio hori da, hain zuzen ere, bizitzari forma emango dion moldea.

Gal detzen hasita, zenbat Luzatu dira ambulatorioko harrerako ilarak osakidetzaren telefono arreta berria abian jarri zutenetik?

Errukirik gabe

Zortzi urte geneuzkan eta ordurako bagenekien krudeltasuna zer zen. Umetatik oso neska "zailak" ziren Maria Dolores *la mala* eta Marinieves, gure gelakideak. Bizitzak zorientasuna ukatzen zinez, patuaren kontra amorratzen ziren, eta bere bidean aurkitzen zuten guztiaren aurka aritzen ziren. Pertsona batzuk bizitza osoan horrela dabilta, amorraturik hutsune existentziala bete nahian.

Behin batean, eskolatik at aurkitu ziren *la mala* eta Marinieves, nonbait, euren amorratioak ere, eta borrokan hasi ziren. Talkaren zergatiaz ez naiz oroitzen, baina gure bizitza mugatu bezain aspergarrietan oso suspengarria izan zela akordatzen naiz. Borroka ederra izan zela. Badakit, begira eta adi-adi egon nintzelako. La mala-k irabazi zuen baina besteak, oso haserre, esan zion: "Bihar ikusiko duzu!"

Ez dakit zer gertatuko ote zen hurrengo egunean, agian haserre pasatuko zitzaiezen baina hor geunden besteak, neska zintzoak, desafioa gogorazte-



amagoia aizpuru

Jaiotzen garenetik, norbaitekin atxikimendua izateko beharra dugu. Eskaintzen diguten zaintzaren arabera, lotura estilo ezberdinak sortuko dira. Haurraren behar guztiak (emozionalak, fisikoak...) asetzen direnean, pertsonari modu egoki batean garatzen laguntzen dion lotura edo atxikimendu zihur batez hitz egingo genuke. Estilo zihur horrek pertsonari bere garuna modu ordenatu batean garatzen laguntzen dio, eta beste gizabanakoekin modu egoki batean erlazionatzea ahalbidetzen du.

Beraz, argi dago, oso garrantzitsua da pertsonaren lehenengo urteetan eskaintzen diren zaintzak egokiak izatea, horrek lagunduko baitio bere bizitzako ibilbide osoan. Goazen ba, ahal dugun neurrian gure haurtoak babestera, asetzerara eta ahalik eta kalitatezko zaintza egokiena eskaintzera. Hain zuzen ere, Amatasunaren irudiak sinbolizatzen duen goxotasuna, zihurtasuna eta babes hori eskaintzera!*



miren alcedo

ko. Hala, egunero klaseak amaitzean, gure odolaren "goilarakada" eskatzen genuen. Halako borroka besteentzat eguneroko droga bihurtu ziren.

Eskolako pasiloan garrasika hasi ziren egunean gure gozamen amaitu zen: "Borrokara, borrokara!". Oihu honen atzetik Isabel andereñoak jarraitu gintuen; bi ikasle xumeenak borrokatzen ari zirela ikustean harrিতa geratu zen, eta tartean, besteok, zintzoenok, familia onekook, liskarra ikuskizun bihurtu genuen. Andereñoak zirko erromatarra desmuntatu zigun, eta argi eta garbi azaldu zigun okerrera ez zela borrokatzea, horrekin gozatzea baizik.

Hil honetan, berriro ere, herriko festetan odolzerga eskatzen dugu. Txikitik ikaskideen mina erreklatatzen genuen antzera, zezenaren tortura eta hilketak eskatzen eta txalotzen dugu orain. Gu dibertitzeko, zergatik behar dugu besteen odola? Zergatik eskatzen dugu gizakiok, elkartasunaren adibide handienak garenok, ahulen sakrifizioa?*



Inbidia

Imagina ezazu. Plaza bat, agertoki batekin, udako ostiral batean. Agertokiaren aurrean aulkiak. Hamaiketan da kontzertua, eta hamar eta erdietarako jendea eserita dago zain. Hamaikak laurden gutxirako ez dago aulkirik libre, eta jendea aulkien ondoan eta atzean pilatzen hasten da. Zirimiri antzeko bat hasi du, baina inor ez da mugitzen bere lekutik. Aterkia daukanak irekitzen du, baina besteak han daude, geldirik, zain. Aulkien inguruan, eskilaretan, etxeetako leihoetan jendeak pilatzen jarraitzen du. Bostehun bat aulki daudela pentsatu duzu lehenengo begi

kolpean. Hasi zara iladak kontatzen eta mila aulki behintzat egongo dira. Tente dagoen jendea kalkulatzea ez da hain erraza, baina plaza handia da, jendea pilatuta dago, izugarriko jende pila dago. Behetik jota bi mila lagun egongo direla kalkulatu duzu. Herri guztia dago han, gazteak, zaharrak, umeak, turistak. Zure moduan beste herriren batetik joandakoak ere egongo dira.

Lekeition gertatu zen hori, oraindik orain. Lekeitioko musika bandak eta Delirium Tremens taldeak eman zuten kontzertuan. Baten batek pentsa dezake Delirium ikustera joan

■■■■■■■■■■■ eñaut frantsesena ■■■■■■■■■■

zela jendea, baina hasieran bandak bi pieza jo zituen, gero Delirium-en lau kanta jo zituzten, eta bukatzeko bandak beste bi edo hiru pieza jo zituen. Inor ez zen mugitu. Ezta Deliriumen kantak bukatu zirenean ere. Kontzertua bukatuta ere inor ez zen mugitu. Vis-ak nahi zituen jendeak, eta han geratu ziren jo zituzten arte.

Geroztik, kontzertu hori Azpeitian irudikatu duzu. Eta imaginatu duzu nolakoa izango zen: publiko oso gutxirekin. Eta noski, jendea mugimenduan eta hizketan kontzertua ari zen bitartean. Eta inbidia sentitu duzu.✱



baserritik.com ■■■■■■■■■■ publieerreportajea



baserritik.com



Aurreko alean eman genizuen Baserritik.com egitasmoaren berri. Egitasmoak aurrera jarraitzen du indar betean. Bertako produktuak zuzenean saltzeko denda zabalik dugu jada Zarautzen, bitartekaririk gabe produktu fresko eta naturalak eskainiz herritarrei. Azoka berezi bat ere antolatu genuen Zarautzen uzta-laren 14an eta arrakasta handia izan zuen, bisitari ugari izan baitzuten.

Datozen asteetarako, berriz, egitasmo berri bat prestatu dugu. Eskualdeko nekazalturismo eta hainbat ostatutan berta-

ko produktuez osatutako otarrak jarriko ditugu salgai: 4 saski desberdin izango dira aukeran: sargardotegiko produktuz osatutako *Loiola*; itsasoko elikagaiez osatutako *Getaria*; baratzeiko produktuez hornitutako *Errezil* eta artisau produktuez osatuta-

ko *Urola* saskia. Gehienbat eskualdea bisitatzera datozen turistek zuzendutako ekimena da; nolana ere, edonork izango du aukera otarra hauetakoren bat eskuratzeko. Opari eder bat egiteko aukera paregabea izan daiteke.

Baserritik.com atariko azoka birtualean erosketak egitean kalitatezko bertako produktu freskoak eskuratu dituzu, lehen sektorea biziberritzen eta ingurumena zaintzen lagunduko duzu, eta bitartekaririk gabe, bertako produktuak etxean jasoko dituzu, erosotasun handiz.



Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentua
Gipuzkoako Foru Aldundia



UROLA KOSTAKO LANDA GARAPENKO ELKARTEA



Egañaneko inazioak

Gozogintzan artisauak, 6oko hamarkada bukaerarako borobilduta zuen Jabier Egañak hain preziatua den “etxeko berezitasunaren” errezeta. 📌📷 Ainitze Agirrezabala



▲ BEREZITASUNA.

Inazio Egañaren aita zenak, Jabier Egañak, 60ko hamarkada bukaerarako bazuen berezitasun preziatu honen errezeta. Gerora, patentatu egin dute. Egaña gozotegia 1902an sortu zuen Inazioen birraitonak, orain Lokotx taberna den lekuan. Argazkian, Maite Azurmendi Goiko kaleko gozotegian.

► MOLDEAK BETE.

Behin orea prestatuta, dosifikatzailearen bidez moldeak betetzen dira. Zulotxo bakoitzak oinarrian hostopil zati bana du. Duela sei urte arte altzairuzko moldeak erabiltzen zituzten, baina "kristoren lana zen haiek desmoldatzea eta garbitzea; errazagoa da silikonazkoarekin. Argazkian, Roberto Carretero madrildarra lanean.



▲ 2.000 INAZIO, ALDIKO.

Azukrea, gurina eta gatz pixka bat nahastuta egiten da orea. Normalean, astean behin edo bitan egiten dituzte Inazioak, eta aldiko 70 kg ore egiten dute, 2.000 Inazio, gutxi gorabehera. Sekretua orearen temperatura dela dio Ina Egañak: "22 gradutan behar du egon". Argazkian, Pili Arregi osagaiak nahasten. 32 urte daramatza gozotegian lanean.





▲ GAINETIK... ALMENDRAK.

Behin moldeak orearekin betetzean, labean sartu aurretik, almendrak botatzen dira. Pili lbaguren zeregin horretan.

▼► ESKAINTZA ZABALA.

Gozogintzan artisaauk dira. Goi-mallako lehengaiak erabilita gero eta aukera zabalagoa eskaintzen dute: Venezuelako espezia naturalekin egindako bonboiak, askotariko pastelak, txokolatea... Inazioak labean dauden bitartean Ina Egaña gazta-tarta txikiei marmelada jartzen, eta haren emazte Ana Azurmendi txokolatezko bonboiak apaletan jartzen.

▼ LABERA.

Inazioek labean egin beharreko denborak garrantzia handia du. 190 graduko temperaturan 24 minutuz egon behar dute Inazioek labean.





▲ MOLDEETATIK ATERA ETA KAXETAN SARTZEN.

Ihintza Eizagirre inazioak moldeetatik atera eta kaxetan sartzen, Landetako gozogintzako lantegian. Iazko maiatzean zabaldu zuten Landeta auzoan tailerra, kafetegi eta guzti.

HIRU GOZOKIAK.

Sormena lagun, berrikuntzak egin zalea da Ina Egaña. Hiru seme-alaba dituzte eta haien izen bereko pastel bana asmatu du: Eneko, Adur eta Izar (argazkian, senar-emazteak hiru gozokiekin). Gozogintzan ere "krisia nabaritzen" dutela dio, baina salmenta sasoi indartsu-enetako bat iristear da: saninazioak. On egin!★



Marrazkia baldintzatuta

Baliogabetutako 2007ko Arau Ordezkatzaileak ordezkatu dituen Hiri-Antolamendurako Plan Nagusi berria hasi da bidea egiten. ✍️📧 Mailo Oiarzabal

Azpeitiko Hiri-Antolamendurako Plan Nagusia martxan da. Orain dela bi urte pasa Udalean hasitako lanak bere emaitza eman du eta joan den uztailaren 5ean Udalbatzak hasierako onarpena eman zion, Bilduren eta EAJren aldeko botoekin; Aitor Aranguren Hamaikabateko zinegotziak ezin izan zuen bilkuran parte hartu.

Dokumentu-multzo mardul batean jaso dituzte, horrenbestez, datozen zortzi urteetan hainbat esparrutan udalerraren garapena nondik norakoa izango den eta nola gauzatu den gidatzeko balioko duten irizpideak. Planaren iraungitzea aipatutako zortzi urteak betetakoan eman daiteke, baina zortzi urteena ez da epe hertsia. Urte horiek pasatutakoan, eta beti ere uneko beharren arabera, plan bera luzatu egin daiteke, edo berri bat landu; zortzi urteak pasatu aurretik plana bete dela iritiz gero, aurretik ere egin daiteke planeamendu berria.

Epe laburrera Azpeitia nolakoa izango den jakiteko giltzarriak jaso dituzte Plan Nagusia. Etxebizitzak, industriarako guneak, erre-
pideak... non egin daitezkeen eta non ez, zen-

Hazkunde
demografikorik
ez da begitantzen:
2009ko 14.376
biztanleetatik
2020ko 15.000ra

bat izan daitezkeen eta zenbat ez; edota lur-
eremu jakin bat zertarako erabil daitezkeen
eta zertarako ez. Horrelako kontuak zehazten
dituzte hiri-antolamendurako planek. Ohiko
prozedura jarraituta, ohiz kanpoko eragozpe-
nik ez badago, gutxi gorabehera urtebete
pasatuko da Plana behin betiko onartu aurretik.

Azpeitiko hiri-antolamenduak gorabehera
asko izan ditu eta buruhauste handiak eragin
dizkio Udalari –eta herritarrei– aspaldiko ur-
teetan. Udalak orain dela hiru urte, 2009ko

uztailean, hartu zuen orain onartzeko bidean
den Plan Orokorra egiteko erabakia. Egoe-
rak hala behartuta hartutako erabakia izan
zen hura. EAeko Auzitegi Nagusiak Azpeitiko
Udalak 2007an onartutako Arau Ordezka-
tzaileak hankaz gora jarri zituen, izan ere, arau
haietan jasota zeuden Etxebeltz-Izarrako,
Soreasuko eta koarteleko hirigintza planak
baliogabetuz. Hiri-antolamendua eta, ondo-
rioz, hainbat egitasmoko kolokan gelditu ziren
–Etxebeltz-Izarra eremuko etxebizitzena izan
zen agerikoena– eta horregatik sortu zitzaion
Udalari garaiz aurretik planeamendu berritze-
aren premia. Orduetik hona aritu dira lanean
udaletxean, Azpeitiaren gaur egungo egoe-
ratik eta errealtatetik abiatuta, etorkizunean
nondik jo eta zertan eragin beharko litzate-
ken erabakitzeko.

Orrialde hauetan Hiri-Antolamendurako
Plan Nagusiaren zertzelada batzuk azaltzen
dira, labur.

ETXEBIZITZA.

Krisia eta Corrugados. Bi aldagai horiek
izan dute pisua Plan Nagusiaren barruan



Corrugados Azpeitia enpresaren eraikinak, Amueko eremuan.

gehien aipatu ohi den etxebizitza berrien aurreikuspenean, bai kopururi dagokionean, bai herriaren hazkunde norantz egin zehazterakoan. 2007an onartu eta auzitegiek atzera botatuko Arau Ordezkatzaileetan jasota zegoen ildo jarraitzea zen eta da oinarritzko irizpidea; hau da, Corrugados Azpeitia enpresak herriko erdigunean duen labea eta beste jardun batzuk erdigunetik Lasaora (Badiolegi-Trukutxora) eramanda, herriaren hazkunde eremu horretara bideratzea. Herria barrurantz haztea, nolabait esateko.

Plan Nagusi berriak hazkunde aukera horri eusten dio baina, krisiak kolpatuta dagoen Corrugados enpresaren egungo egoera kontuan hartuta, lantegiak Azpeitia erdi-erdian dituen instalazioak noiz eta nola utziko dituen aurreikustea ez da kontu samurra. Horrela, Udalak hazkunde bideratzeko beste eremu nagusi bat aurreikusi du: Esklabak-Iturzulo eremua.

Corrugados ez da, ordea, krisian dagoen bakarra. Krisi ekonomikoa orokorra da eta horrek eraikitzea aurreikusten den etxebizitza berrien kopuruan ere izango du islada, kopuru hori murriztuz, hain zuzen.

Irailaren 21a arte

||| **Uztailaren 5eko ez ohiko plenoan egin zuen Udalak Hiri-antolamendurako Plan Nagusiaren hasierako onarpena. Harrezkero, herritarrek eskura dute dokumentazio osoa, eta hala nahi edo erabakitzen dutenek Planari dagozkion alegazioak egiteko epea ere zabalik dago.**

Hain zuzen ere, eta udako oporraldia tartean zela kontuan hartuta, informazioarako eta alegazioetarako epe hori legeak agintzen duena baino gehiago luzatzea erabaki du Udalak: irailaren 21a arte, bera barne dela. Plan Nagusiaren dokumentazioa Udaleko Idazkaritzan eskatu daiteke, eta Interneten ere jarri dute, Udalaren webgunean ('www.azpeitia.net' helbidean).

Hauek dira etxebizitzaren atalean Plan Nagusian jasotako kopuruak:

||| **Etxebizitza berriak:** 1.163 etxebizitza berri eraikitzea aurreikusten dute Planean. 275 BOEak (babes ofizialekoak) izango dira, 336 tasatuak eta 552, libreak.

||| **Guneak:** Planean, Corrugados Azpeitia enpresaren labea dagoen gunea (Amue) da etxebizitza berri gehien eraikitzeko aurreikuspena mantentzen duena: 462 etxe, hain zuzen. Esklabetako komentuen atzekaldean eta Iturzulon, berriz, 274 etxebizitza egitearen aukera jasotzen da. Madalena-Sorea eta San Miguelen ere ehundik gora etxebizitza aurreikusten dituzte (155 eta 112, hurrenez hurren). Zezen-plaza, Acilona eta Santutxoko guneetan ere hainbat etxe berri egiteko aukera jasotzen du Planak. Herrigunetik kanpora, berriz, Urrestillako Txorietxeko gunean 60 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da.

Aipatutako gune horietatik Esklabak-Iturzulo, San Miguel eta Txorietxe dira lehendik etxebizitzarik ez duten zonalde bakarrak.

||| **Erreserbatutako guneak:** Etxebizitzak eraikitzerik ez da aurreikusten Esklabetatik Loiolarako tartean (Izarraizpe gunea da hori, Azkunekoa ere barne dela), ezta Oiarzabalgo gunean ere. Bi zonalde horiek sektoretatu gabe erreserbatuta geratzen dira Planean: etorkizunean etxebizitzak egiteko moldatu ahal izango lirarteke bi guneak, baina abian▶

►den Planak ez du hor garapen urbanistikorik aurreikusten.

INDUSTRIARAKO LURRAK ETA EKONOMIA JARDUERAK

Badiolegi-Trukutxo. Corrugados Azpeitiak Lasao aldean eraiki duen industriagune berriaren ordenazioa da, aurreko plangintze-kin alderatuta, Plan Nagusi berriak industria lurren arloan jasotzen duen berrikuntzarik aipagarriena. Eremu horretan egindakoa 'legeztatuko' dute, nolabait, arau berriek.

Larre eta Larrin. Landetan dauden bi eremu horien garapena aspalditik dago jasota Azpeitiko Udalaran hirigintza-planetan, eta Plan Nagusi berrian ere industria lurrei dago-kienez bi eremu horiek jasotzen dira, jarduera berrietarako prestatzeko aurreikusita. Larre-ko eremuan pauso batzuk emanda daude da-goeneko, ez horrela Larrinekoan.

Zapatari. Etxebizitzaren kasuan Izarraizpe-Azkune eta Oiarzabalgo guneen antzera ger-tatzen da industria lurren arloan Urrestillara bidean dagoen Zapatari-ko eremuarekin: in-dustría jardunerako erreserbatuta dago, baina datozen urteetan, onartu bidean den Plana indarrean izan daitekeen epean, ez da han garapenik aurreikusten.

Hirugarren sektorea. Ekonomia jardue-rak dibertsifikatzearen beharra jasota dago Plan Nagusiaren dokumentazioan, irizpideen artean. Proiektu zahatzik ez da aipatzen, baina hirugarren sektoreko jarduerentzat, zerbitzuen sektorerako, espazio berriak aurreikusten dira bi gunetan: Arana Ingurunean eta Amuen.

KOMUNIKAZIO ETA GARRAIO AZPIEGITURAK

Saihesbidea. Plan Nagusiak balizko bariantearen ibilbiderako lurak gordetzen ditu, hasi Landetatik Loiolarako bidean, Oñatz azpitik. Saihesbidearen ibilbide zehatza, ordea, ez dago erabakita. Errepide-sarea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumena da; erakunde horri dagokio Azpeitiko saihsbide berrirako ibilbidearen azterketa egitea. Denboran de-zente luzatu daiteke, horrenbestez, proiektu-ta; are gehiago, krisia kontuan hartuta.



Azpeitia, Xoxoteko bidetik hartuta.

Trenbidea. Trenarentzako espazioa ere gorde du Udalak Hiri-antolamendurako Plan Nagusian. Kasu honetan, trenbide sarearen eskumena Eusko Jaurlaritzari dagokio, eta erakunde hori Azpeitia eta Zumaia artean trenbidea berreskuratzearen aukera aztertzen ari da. Udalak balizko tren berrirako gorde duen lurra garai bateko Urolako Trenaren ibilbideak hartzen zuen bera da, gutxi gorabehera. Hasieran, Jaurlaritzaren asmoa merkantzien garraiora bideratuta zegoen. Udalak hala eskatuta, azterketan pertsonen garraioa ere kontuan hartuko du orain.

Autobusak. Trena berreskuratzearen aukera zertan geratuko den airean dela, epe motzean eta ertainean garraio publikoaren apustua autobusaren alde egitea aurreikusten du Plan Nagusiak, zerbitzuak ahal den neurrian indartuz.

Errepide bidezko loturak. Udalerri barrukoak alde batera utzita, ez da aurreikusten Azpeitia eta inguruetako bailaren arteko errepide lotura berririk. Aurreko Arau Osagarrietan jasota zegoen Ezkio-Itsasorako loturaren aurreikuspenik ez da jasotzen, adibidez.

Oinezkoak eta bizikletak. Planean aurreikusten den antolaketa herrigunean mo-

tordun ibilgailuen erabilera murriztera bideratuta dago; hori litzateke epe ertain eta luzerako helburua, oinezkoak eta bizikletaz mugitzen direnei gero eta erraztasun gehiago eskainiz. Helburu hori gauzatzen laguntzeko jasota dago, besteak beste, bidegorrien sarea osatzen joatea. Gipuzkoako bidegorri-sarearen barruan, Azkoititik Azpeitira eta Azpeititik Lasara doazen bi zatiak elkartuko dituen egitea aurreikusita dago, eta hirugarren zati horretatik abiatuta Urrestillara iritsiko litzatekeen bidegorrien aukera ere bai. Herri barruan, berriz, eremuaren arabera jokatu dute. Auzo edo kalearen arabera, bidegorriak egingo dituzte, edo '30 zonaldeak' deritzaien guneak antolatuko dituzte; azken horietan, motordun ibilgailuek oinezkoekin eta txirrindulariekin konpartitu dezakete espazioa, baina abiadura oso mugatua, lehentasuna oinezko eta txirrindulariaren izaten delako.

BERDEGUNEAK

Loiolako etorbidearen ingurua. Sortuko diren berdegune berriak Loiolako etorbidearen bueltan kokatuko dira nagusiki, inguru horretan dagoeneko eraikita dauden etxebizitzaren inguruan.✘

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Ekain
Larrialdia: 943 15 16 40
ALBAITARI KLINIKA

||| **UDALEKO ALDERDIEN BALORAZIOA** |||||
BILDU
alderdi politikoa

“Egoera berriari egokitutako Plana da”

“Balorazioa oso positiboa da. Plana Udalak duen dokumenturik estrategikoena da eta, kasu honetan, derrigorrezkoa zen egitea; izan ere, 2007ko plana atzera bota dute auzitegiek. Planarekin batera onartu den hitzarmena ere [Esklabetako] oso onuragarria da Udalarentzat. Egoera berrira egokitutako Plan Nagusia da. Etxebizitza kopuruari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak zehazten dituen kopuruen barruan baxuenetan kokatzen da. Era berean, etxebizitza babestuen aldeko politika egiten da eta etxebizitza librean kopuruan ia 300eko jaitsiera dago.

Corrugadoseko eremua izan da aldagai nagusia. Labea tokiz aldatzea aurrekusten da Planean, nola ez; baina aldatzen ez bada ere, aurreikuspenak eginda daude, herria Esklabetako eremuan garatzeko”.


EAJ
alderdi politikoa

“Koherentzia politikoagatik eman dugu baiezko botoa”

“Baiezko botoa eman diogu Plan Nagusiari, koherentzia politikoagatik: Azpeitiak ezin duelako Planik gabe egon. Baina lehenengo galdera da: %95 lehengo plana baldin bada, zergatik ez ziren Arau haiek aprobatu eta orain arte zain egon?”

Bestalde, gehiago zehaztu behar dira gauzak: Alde Zaharra biziberritzearekin zer gertatzen den, Urola tren noraino joango den eta zein trataturrekin, Zaharren Egoitza, Azpeitia-Azkoitia saihesbidearen tratatua nondik joango den, zer motatako etxebizitzak egin, non eta zein kopurutan, industriarako lurra nola geratzen den...

Behin-behineko onarpena eman aurretik eztabaidatu eta adostu beharreko gaiak direla uste dugu eta, gure ustez, ez dira behar bezala zehaztu”.


HAMAIKABAT
alderdi politikoa

“Ez zaio lehentasunik eman barruranzko hazkundeari”

“Plana herritarrei bizkarra emanez egin da, inongo parte-hartze prozesurik gabe. Etxebizitza kopuru maximoa planteatzen da, etxeak saldu ezinik daudenean. Planak ez dauka etxebizitza eskariaren azterketarik; Hamaikabatek eskatu du eta Bilduk egiteari uko egin dio. Alde Zaharra biziberritzeko estrategikoa den Frantziskanen eremua lur urbanizagarri izendatzea ere eskatu dugu, Udalak lurra ditu han, baina Bilduk ezetz esan du. Ez zaio lehentasunik ematen barruranzko hiri-hazkundeari. Ezker abertzalea Esklabetan ‘0 etxe’-tik ‘274 etxe bai’ esatera pasatu da. Bariantea planeatu den bezala badakite ez dela egingo eta Sanjuandegi atzeko bidea hor dago, ezertarako. Larrin ere ez da egingo eta, bitartean, Landetarako planik ez dago. Eta, zergatik dago Plana gartzelania hutsean?”.

KIRURI
JATETXEA

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa: 943 81 55 08
Faxa: 943 15 03 62

Tuba
enbarkularitza

Aholkularitza
fisikala
laborela
kontabiloa

Gestorj lanak
Finanzen administrazioa
Gestio inbiliarria

Tlf: 943 137 325 Faxa: 943 137 278
Errepublikan 44, 45 • Tuba.azkoitia@kubernet.net

arte eta diseinu ikastegia

Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00

Pintura 17:30/19:00

Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

Kutxillo
Urdaiazpikoak, hestebeteak eta gaztak

KALITATEA MODU ONEAN
Eskut: 650 701 418 Oier: 618 240 173

Damaso Azkue plaza 6, beheak
Tlf: 943 15 09 19
kutxillo@gmail.com

Bat bitan

Hiru kirol uztartzen dituen modalitatea gero eta azpeitiar gehiagok egiten du. Azpeitian, ordea, triatloi talderik ez eta Azkoitira jo dute. 📝📍 **Monika Juaristi**

Azken urteotan azpeitiar triatleten kopurua asko igo da. Modan jarri da hiru kirol uztartzen dituen modalitatea. Azpeitian, ordea, ez dago triatloi talderik. Ondorioz, azpeitiarrek beste herrietako taldeetara jotzen dute: Zarautz, Zumaia eta Azkoitia, besteak beste. Jon Albizu, Mikel Albizu *Palu*, Jon Oteiza *Ote*, Iker Segurola *Xegu*, Jagoba Korta eta Jose Luis Garate *Pepe* dira, beste batzuen artean, Azkoitiko Triatloi Taldeko ki-deak. Gari Uzkudun *Aizitxo* (Azpeitia, 1980) eta Aitzol Agirregomezkorta *Txartxa* (Azpeitia, 1987) ere zerrenda horretan sartzen dira.

Uzkudunek hamar bat urte daramatza triatloi probak egiten, eta ez du gogoratzen zerk eraman zuen triatloiak egitera. Baina ondo daki zergatik aukeratu duen triatleta izatea: "Ni egunero korrikan aspertu egiten naiz, eta gainera lesionatu. Ez zait gustatzen eta ez naiz ondo sentitzen. Egunero igerian ere aspertu egingo nintzen, eta baita egunero bizikletan ibilita ere. Triatloiak, aldiz, proba atraktiboak dira, eta ni engantxatuta nago". Agirregomezkorta, aldiz, aurtan hasi da triatloiak egiten, eta badaki nondik datorkion grina. Umetan, aitarekin Zumaia triatloia ikustera joaten zen. "Inbidia handia pasatzen nuen", dio berak: "Harritu egiten ninduen atletek Zumaian igeri egin, gero bizikletan Azkoitira joan eta han korrika egiteak. 'Egunen batean egitea gustatuko litzaidake', pentsatzen nuen". Umetan igerian ibiltzen zen bera; eta



Uzkudun eta Agirregomezkorta. |||Juaristi

ondoren, urte ugari pasatu zituen Lagun Onak-en futboleant. "Udan lana eginez bizikleta erosteko dirua aurreztu nuen, eta lortu nuenean, alde horretatik hasi nintzen tiraka".

Taldeko dinamika nahiago

Uzkudunek triatloiak egiten urte asko eman arren, aurtan sartu da Azkoitiko Triatloi Taldean; orain arte bakarka ibili da. Agirregomezkorta ere aurtan sartu da. Beraz, bien lehen urtea da hau. Triatloi probetan parte hartzeko ez da beharrezkoa talde batean egotea. Hala ere, taldeko partaide izateak onura asko ekartzen ditu. Batetik, materialak; talde batean egotean, patrozinatzaileak lortzen dira, eta arropa eta bestelako materialetan asko au-

rrizten da. Hala ere, sozialki irabazten dute atletek. "Giro ederra sortzen da, eta beste babes bat jasotzen duzu. Zeure erara ibili beharrean, beste jende batekin gauzak konpartitzen dituzu eta gertutasuna sentitzen da. Gainera elkarri laguntzen diogu: zer egin, zer ez egin...", kontatu du Agirregomezkorta. Uzkudunek ere nahiago du taldeko dinamika: "Beste funtzionamendu bat da. Jendea eza-gutu eta lagunak egiten dituzu. Talde bezala errazago da, denean bezalaxe".

Taldean egoteak, ordea, ez du kirolarien sakrifizioa gutxitzen. Entrenatu norberak berea egin behar izaten baitu, eta dedikazioa handia da. Proba ezberdinak egoten dira: esprintak (distantzi laburreko probak), olinpikoak (distantzi ertainekoak) eta proba luzeak. Uzkudunek denetik probatu du, eta egun, esprintak egiten ditu: "Orain motzetan ibiltzen naiz; batetik, gustatu egiten zaizkidalako, eta bestetik, orain denbora gutxiago dudalako". Proba motzetarako entrenamenduak laburragoak izaten dira, baina hala ere, egunero egin behar da zerbait. Uzkudunek, asteko sei egunetan entrenatzen du, eta kirol bakoitzeko bi entrenamendu egiten ditu: "Bizikleta egiten dudanean ordu eta erdi, bi ordu bitartean ibiltzen naiz. Korrika eta igeria entrenatzen ditudanean, aldiz, bakoitzetik gehienez ordubete egiten dut. Niretzako entrenatzeko da ederra. Hiru kirol praktikatzeara arinagoa eta dinamikoagoa da".



Etxeberria, igeriketa proban. ||| **B. Mutiozabal**

Agirregomezkorta, aldiz, proba luzeetan ibiltzen da: "Ordu asko sartu behar izaten ditut, baina ez nuke esango sakrifizioa denik. Benetan gustatzen zait eta neuk nahi ditudan eta behar ditudan orduak eskaintzen dizkiot. Gustura bazabiltz, merezi du". Uzkudunek bezalaxe, asteko sei egunetan egiten du kirola: "Igeria eta korrika askotan egun berean egiten ditut; eta bizikleta egiten dudanean bakararra. Egunero denbora ezberdina ematen diot. Batzuetan entrenamendu luzeak egiten ditut, eta bestetan motzagoak".

Triatleta bakoitzak emaitza pertsonalak lortzen ditu probetan, baina taldea ere lehiazten dira azkoitiar taldekoak. Proba guztietan, talde bakoitzeko lehen hiru sailkatuen denborak gehitzen dira. Aurten, emaitza onak lortu dituzte taldean. Eibarren, esaterako, duatloia irabazi zuten; eta Getxon, errelebotan egindako triatloian, hirugarren sailkatuak izan ziren. Bertan izan zen Agirregomezkorta. "Aurten taldea ondo ibili da", azpimarratu du Uzkudunek.

Emakume triatleta

Azpeitian emakumezko triatletarik ere bada; bakararra. Nerea Etxeberria (Azpeitia, 1983) da bera. Txikitatik korrika ibili izan da. Duela bi urte, entrenatzaileak triatloiak egitera animatu zuen, eta horrela hasi zen; baita bere mutil lagunak triatloiak modu berezian bizi dituelako ere. Etxeberriaren mutil laguna Ruben Al-mendro azkoitiarra da, eta dagoeneko zortzi Iron Man egin ditu. "Berak ez balitu triatloiak bizi dituen bezala bizi, oso zaila izango litzateke ni mundu honetan sartzea", kontatu du.

Plentziko Eskoman triatloi taldean dabil. Etxeberria. Entrenatzailea bertako kidea da; "eta berak bultzatu ninduen. Gainera, lagu-



Azkoitiko Triatloi Taldeko kide azpeitiarrak. ||| **Azkoitiko Triatloi Taldea**

Herrian noiz?

||| **Azpeitian hainbeste triatleta egonda, ez al da herriko taldea sortuko? Talde ugari daude: Zumaikoa, Azkoitikoa, Zarauzkoa... Bada Urola Goiko taldea ere, Legazpi, Zumarraga, Urretxu eta beste herrietako jendea biltzen duena. Zergatik Azpeitian ez? "Nire ustez ez du zentzurik Azpeitiko taldea sortzen jartzeak", dio Uzkudunek: "Nik neuk posibleago ikusten dut Urola Beheko taldea sortzea edota gaur egun dauden taldeak batzea. Horrela, Azkoitia, Zumaia, Azpeitia, Errezil, Zarautz eta gainontzeko herrietako jendeak talde bakar bat osatuz". Agirregomezkorta ere bateratzearen aldekoa da. "Ni oraindik berria naiz", dio Etxeberiak, baina herrian dagoen zaletasun handia dela eta, "zergatik ez? Tentagarria litzateke, seguru baietz", gaineratu du. ✖**

nak egin nituen bertan, eta bertan hasi nintzen". Bi urtean hainbat proba egin ditu eta "hasi naiz kalloa hartzen; normalagoa da behintzat", dio berak. Lehen bi urteetan, proba motzetan aritu zen. Aurten, aldiz, erdi distantziako Iron Man proba egin zuen, eta "lehenengoaz izateko oso gustura ibili nintzen", azaldu du.

Denbora asko eskatzen du triatloiak prestatzeak, eta ondo daki zer den hori. Asteko zazpi egunetan aritzen da, eta hiru astetik behin egun bateko atsedena hartzen du. Astean, kirol bakoitzeko hiru entrenamendu egiten ditu. Korrika eta igeria egun berean lantzen ditu; eta bizikleta, bestean. "Bizikletan, batez beste, hiru ordu inguruko entrenamenduak egiten ditut; eta korrika eta igeri egiten dudanean, bi ordu eta erdiokoak edo".

Aurrera begira ez daki nolako probak egingo dituen: "azkenean ez dago trukorik, egiteko entrenatu egin behar da, eta horretarako, denbora behar da". Momentuz, ordea, gogotsu dabil Etxeberria. ✖

|||alaitz olaizola|||



|||gurutze eizmendi|||

Festetan gu ere bai!

Alaitz. Badatozelaaaaa!

Gurutze. Zer, zezenak?

Alaitz. Horiek ere etorriko ditun itxura denez, baina ez, San Inazioei buruz ari naun. Ondo gogoan dizkinat pasa den urtekoak, eta aizan, aurtengoak ailegatu!

Gurutze. Bai neska. Hau den hau zahartzea konturatu gabe! Halere, ez zaidan juerga egiteko gogorik falta. Marka dun gero nirea... Aurtun ere larri ibili... Animatzen al haiz?

Alaitz. Gu ez al gaitun ba "sobre la martxa"koak? Jende gehiegi bazagon, bero egiten badin... Igoal etxean geratuta hobe?

Gurutze. Ni baino zaharrago hago, amona! Hainbeste pentsatuz gero, normala etxean geratzea. Juergan ibiliko direnen adina "ekilibrau" beharko dinagu ba?!

Alaitz. Gazte asko baina heldu gutxi ibiltzen dela esan nahi dun... Arrazoia dun. Krisiaren eraginagatik aurtun zer gertatuko den jakinmina dinat. "Botelloia" ez ote dun indartuko...

Gurutze. Guk ez dinagu "botelloirik" egingo. Onena, zuritoak erdi bana hartzea.

Alaitz. Bale, zuritoa erdibana. Txikitoa erdi bana hartzen hasten bagaitun, gu erretiratu ko gaituen kristaurik ez baidun egongo!

Gurutze. Eta gosetzen garenean, poltsatik "tuperra" aterako dinagu. Hik albondigak eta nik txorizo muturra.

Alaitz. Eta ogia bezperakoa. Lehengo urtean erositako txapelak akordatzen? Jasota izango dun, ez? Hori buruan jantzi, marea arroxaren kamiseta soinean, -hiru egunean berdina, noski- eta hi, tope!

Gurutze. Animatu haiz orduan! Nire txapela gorria dun, eta kamiseta arroxarekin ez din batere "pegatzen". Bueno, beste norbaiti aldatuko zionat. Beltza, zuria, grisa... hobe, ez?

|||ALAITZ. "Dantza pixka bat gehitu eta San Inaziok ez din gurekin kexarik izango"

|||GURUTZE. "Kexatzen badun, Xoxotera igo eta begiak estaliko zizkionat"

Alaitz. "Pegatu", "pegatu"... Gaez parrandan "pegatzen" al dinagun galdetu behar aurrena... Baina hi, plan polita egin dinagu. Honi guztiari dantza pixka bat gehitu eta San Inaziok ez din gurekiko kexarik izango.

Gurutze. Ez zakinat parranda dantzarik gabe egiten. Eta San Inazio kexatzen badun, Xoxotera igo eta begiak estaliko zizkionat!

Alaitz. Gonbidatu ezan, parrandero fama zinan. Bere kontura jan eta edango dinagu.

Gurutze. Gu gurera, daukagunarekin aurrea. Bekatuan baina ondo!

Alaitz. Bai, gu gurera! Ondo pasatu festak!

Gurutze. *Amaaaa, nahi dezuniaaan, jokai-zu... U!* Barkatu. *Inazioooooooooo, gure patro handia...**



SANINAZIYUEK

2012


AZPEITIA



ondo pasatu saninaziyuek eta
parte hartu!



Abian da tonbola!

Bertan merkatari elkarteak, hainbat saltokik, tabernek, jatetxek eta ileapaindegik babestu dute ekimena. Uztailaren 22an, 29an, 30ean eta 31n eta abuztuaren 1ean irekiko ditu ateak tonbolak.  A. Agirrezabala

Uztarria Komunikazio Taldeak laugarren urtez jarraian prestatu duen festetako tonbolak uztailaren 22an ireki zituen ateak Erdikalean, Jabier Iruretak musutruk utzi dion lokalean.

Aurten ere Udalak, Bertan merkatari elkarteak, herriko hainbat saltokik, tabernek, jatetxek, ileapaindegik eta abarrek babestu dute ekimena, guztira 70 lagun-tzaitetik gora. Eskerrak guztiei, Uztarriak diru-sarrera propioak areagotzeko abian jarri zuen proiektuan denen laguntza oinarritzkoa delako.

Boletoak erosten dituztenek sari asko eta askotarikoak irabazteko aukera dute: Ukabik emandako netbook bat, telebista eramangarri bat, MP4ak, irabiagai luak, haurrentzako bizikleta eta hainbat jostailu, eta beste asko.

III DATUAK

III **Zer.** Uztarriaren tonbola.
III **Eguna.** Uztailaren 22, 29, 30, 31 eta abuztuaren 1.
III **Ordua.** 12:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik gauerdira. III **Tokia.** Erdikalea. III **Antolatzailea.** Uztarria Komunikazio Taldea.

Saririk ez duten txarteletan zozketarako zerbakiak ere egokitu daitezke, tonbola ixtean beste bi sari zozketatuko ditu Uztarriak: bi lagunentzako asteburupasa bat, Eroski Bidaiek-ek emana, eta lau lagunentzako afaria Kirurin.

12:00etatik 15:00etara irekiko ditu ateak, egunero. Arratsaldez, hilaren 22an eta 29an 18:00etatik 21:00etara, eta beste egunetan 17:00etatik gauerdira.✳

III FESTETAKO TONBOLA

5 egunez irekita. Uztailaren 22an, 29an, 30ean, 31n eta abuztuaren 1ean irekiko ditua ateak tonbolak.

2 txartel, euro baten trukean. 12 boleto 5 eurotan, 25 txartel 10 euroren trukean eta 50 txartel 20 eurotan.✳



Uztarriako Orhantza Alegria, iazko pourrako irabazleetako bati saria ematen. III Uztarria Komunikazio Taldea

III BESTERIK

1 Sebastian Donean, bisitak Sebastian Donearen Eliza nagusian eta bertako elementuetan zentratuko da bisita, batik bat guztiz berezia eta Euskal Herriaren bakarra den Bakardadeko Kaperan. Bisitan, elizako ondarea eta ondare honekin lotutako pertsonaien arteko lotura sortuko da, eta horien bidez ondarea azaltzeaz gain Azpeitiko historiari zati bat ere azalduko da.

III **Eguna.** Abuztuak 4, 11, 18, 25 (zapatua). III **Ordua.** 12:00.

III **Tokia.** Sebastian Donearen eliza ataria. III **Antolatzailea.** Iraurgi Lantzen S.A..

2 Bidaia lurrun-treanean Azpeitiko Urola Trenaren geltokia izandakoak trenmakina zaharrak eta tren munduari dagozkion osagai ezberdinak biltzen ditu. Egiazko lurrun-trenera igoz bisitaldia biribildu daiteke abuztuan ere. III **Antolatzailea.** Trenaren Euskal Museoa.

3 Emakumeen futbol kopa Euskal Herriko II. Emakumeen Futbol Kopako final erdia jokatuko da. Aurtengoan, guztira, hamabi taldek hartu dute parte. III **Eguna.** Abuztuak 23 (osteguna). III **Ordua.** 18:00 III **Tokia.** Garmendipe futbol zelaia. III **Antolatzailea.** Euskal Herria Kirola.✳

III Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda

prezioa:
2 boleto
euro batean

egunak:
uztailak
22-29-30-31
abuztuak 1

uztarria

hrt AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA

lekua:
erdi kalean

tonbela

ordua:
12:00-15:00
17:00-01:00

zozketa azken egunean:

- 4 lagunentzako afaria
- 2 lagunentzako asteburua

opariak:

- Bi lagunentzako 30 afaritik gora
- Talasoterapiako zirkuitua
- Ite mozketak
- MP4ak, argazki kamerak...
- ...

bertan
azpeitiko merkatari elkarte

KIRURI

JATETXEA

Ukabi
informatika

jai-alai
jatetxea

VIAJES EROSKI
BIDAIAK

AMAIA TABERNA

MENDIZABAL
ERRETEGIA

URTZI
taberna

IRAURGI SASKI BALOIA
AZPEITIA - AZKOTIA - ZESTOA

GAROA
kafetegia

BAR
ORBEGOZO
ERRETEGIA

Mikel Uría
Jatetxea

Baigera 1
Jubilatuak Elkartea
Hogar del Jubilado

Baigera 2
Jubilatuak Elkartea
Hogar del Jubilado

ONDARBIDE

LAU-BIDE

Kutxillo

PASTORRUA KAFETEGIA

Auntxa
Emetegia

BAR-RESTAURANTE
GARMENDIPE

Lanohar

Ongi Elorri
Jatetxea

IZARO
TABERNA

PIKUA

adab

AÑOTA
Negardegia • Nafarroa
BIZKAIKORTALANDEA

ONINTZA

juantxotxiki
TABERNA

ETXAUN
KUTXILLOA - KAFETEGIA

Bifara

aliur kafetegia

EGUZKITZA
KAFETEGIA

LARATZ
kafetegia

Viraye

JIN CLARCK

OÑATZ
taberna

anare
ite-azpeiterra

EGANA

Garai
garmendipe • karmendipe

KIMETZ

ELNEK
Negardegia

Zuha

errotabundi
okindegia

MATXIN XESTOAK


IREDE
estetika

Colapsu
PENALTA

Malats

LAU-BIDE
KAFETEGIA

INAXITA

KIROLDEGIKO
TABERNA

GOATZ
KAFETEGIA

HARTZUBIA
garagardotegia

Uranga
restorant

Azpillaga
taberna

NEURRI

taberna
azpeitia

Ogi-Berriena
KAFETEGIA

Jone & Maikar

HITZ GEZIDUNAK

	Arnasa har- tzeko bidea	▼	Su bizia	▼	Izan, eduki	▼	DEITURA	▼	Atsegina
	Iruteko eginkizuna	▶	Derioko	▼	Zureak	▼	Bokala	▼	
	IZENA	▶					10 eta 50	▶	
	Esfera	▼					Arratseko bilerak	▼	
Atzeko aldeak	▼	Barrua	▶	▼					
Zipreko hi- riburuko		Katilu txikia	▼						
							Igarobide	▶	
							Kontso- nantea	▼	
Bizkaiko hiriburua	▶				EH-ko mendialdea	▶			
Bekaiztia					Kontso- nantea	▼			
							Iridioa	▶	
							Barazki hostotsua	▼	Ogi, hitz elkar- tzeetan
Musika nota	▶	Dago	▶		Orga	▶			
Barrura		Naizen hau	▼		Urrea	▼			
							Da, niri	▶	
							Kontso- nantea	▼	
Nasa, moila	▶				Ufa eginez, putz eginez	▶			●



Egilea:
Luma

* Atleta azpeitiarra

HIZKI ZOPA

Aurki itzazu hizki zopa honetan azkeneko zortzi olinpiar jokoen egoitza hiriak



G	A	L	S	R	O	U	X	E	S	U	B
A	N	E	P	E	K	S	I	M	E	A	I
R	B	A	K	L	O	Y	L	I	R	E	T
E	S	T	A	B	A	D	I	T	D	O	A
L	O	E	T	E	Z	N	Z	E	N	S	P
I	H	N	L	E	I	E	N	A	O	R	E
O	Z	A	Y	E	L	Y	K	O	L	A	K
S	A	S	N	O	G	S	E	J	T	U	R
E	P	E	N	H	O	N	E	L	P	M	I
A	L	A	S	D	I	K	A	U	L	Y	A
L	D	E	I	K	O	N	G	S	P	E	K
F	U	S	I	Z	T	O	Z	R	O	D	I
O	I	E	O	A	N	I	K	E	P	L	N
R	Z	A	S	K	I	P	I	Z	R	E	A

||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

●	A	K	V	F	U	●	V	A	I	A	K	●
T	A	I	Z	●	A	R	E	N	E	R	A	B
O	R	A	K	●	A	D	●	L	A	L	●	
●	R	I	●	A	Z	A	I	T	A	K	B	
A	E	G	E	●	L	O	B	I	L	B	●	
I	B	I	●	R	A	S	I	A	R	O	N	
A	E	A	●	R	U	R	R	B	A	R	●	
L	X	●	A	E	R	E	N	●	A	R	●	
A	E	T	A	Z	A	K	E	T	A	A	●	
●	●	U	●	G	●	A	●	●	●	●	●	

HIZKI ZOPA

R	Z	A	K	I	P	I	Z	R	E	A			
N	L	A	N	I	K	E	B	●	●	●			
I	F	U	S	I	Z	O	Z	R	O	D			
K	D	E	I	K	O	N	G	S	P	E	K		
A	L	S	D	I	K	A	U	L	Y	A			
I	E	P	E	N	H	O	N	E	L	P	M		
U	R	S	A	N	G	S	E	J	T	U	R		
K	A	●	L	●	Y	●	●	●	●	●	●		
E	R	E	I	H	N	L	E	I	E	N	A	O	R
P	S	P	L	O	E	T	E	Z	Z	E	N	S	P
O	A	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	●	
T	R	B	A	B	A	D	I	T	D	O	A	●	
T	R	B	A	K	L	O	Y	L	I	R	E	T	
I	A	N	E	P	E	K	S	I	M	E	A	I	
B	U	S	E	R	O	U	X	E	●	●	●	●	

||| ZEIN DA? |||||




||| ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Irailak 21 (ostirala) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardo sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ||| ZEIN DEN ADIERAZI.

||| ZURE IZEN-ABIZENAK

||| TELEFONO ZENBAKIA

||| UZTARRIAREN UZTAILEKO ARGAZKI LEHIAKETA |||||

ZEIN DA?



IMANOL LAZKANO BERTSOLARIA



IRABAZLEA



Marije Zubimendi Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 141. irabazlea. Odriozola upategiko ardo-sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Zubimendiren senarra, saria eskuetan duela.

ODRIOZOLA ARDOAK

ardoetan aukera zabalena
bertako produktuak eta gutxiak



Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16
Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103

ELKARRIZKETA DIGITALA txetxu urbieta (euskadi irratiko kirol saileko zuzendaria)

“Alferra naiz, baina inoiz ez dit beldurrik eman Lanak; kezka, talentu faltak ematen dit”

Lanean hasi aurretik ba al zenuen gustuko kazetari edo saiork? Zer iruditzen zaizu egungo panorama?

Txikitatik gure etxeko irratiak harrrapatzen zituen kirol saio denak entzuten nituen. Nire bi idoloak Tito Irazusta eta Joxean Alkorta ziren. Krisiak alor guztiak bete-betean jo ditu eta gurea oso egoera penagarrian dago. Kazetari gutxi batzuk albo batera utzita, askoren lan baldintzak negargarriak dira. Baina gure mixeriak ezkutatu egiten ditugu besteenak aiereratu. Bestela, egungo bitarteko berriek inoiz baino erakargarriago egiten dute gure lana.

Asko aldatuko al zaizu lanbidea eta bizimodua?

Neure kezka eta zalantza izan ditut, baina aurrerantzean egin beharrekoa betidanik gustuko izan dut. Irrati-zale gisa mikroa asko maite dut baina lan honek ere asko betetzen nau. 'Jefe' hitza



da gustatzen ez zaidana. Taldea kudeatzeaz gain, asteburuetan, mikrofono aurrean jarraituko dut. Beraz ezin hobeto. Arazo bakarra nire 'rubiak' gutxiago ikusiko ditudala. Arazoa niretzat, beraiantzat akaso, mesede galanta.

Euskadi Irratian zergatik esaten dituzte hain baxu esatariak kanpokoan golak?

Arrazoi duzu. Kasu horietan buruarekin baino gehiago, bihotzarekin egiten dugu lana. Halere, lasai, saiaturko gara okerra kon-

pontzen. Eta zuzentzen dugun ala ez jakiteko, segi gurea entzuten.

'Hil ala biziko neurketa'. Kirol kazetarien hizkerak ez al du dramatizatzen jotze-ko joera handiegia?

Arrazoi duzu. Batere gustatzen ez zaidan esamoldea da. Askotan esaten diet lankideei, galdu arren, hurrengo egunean ere eguzkia aterako dela. Baina bai, kiroletan dena puzteko ala txikitiki egiteko joera handia dugu.

Langile izatetik lankideei 'agintzera' alde pixkat bada?

Langile izatetik lan gehiago izango duen langilea izatera. Aginduak ematea eta erabakiak hartzea nire lana izango da, baina asmo bakarra lankideen beharrak asetzen saiatzea da. Alferra naiz baina lanak inoiz ez dit beldurrik eman; kezka talentu faltak ematen dit. Denborak erakutsiko du asmoak asmo hutsean geldituko diren ala egi bihurtzen diren.*

EFEMERIDEAK

1809

Idien trukean herriko lur zatiak.

Burgosera (Espainia) egindako garraioan idiak galdu zituztenei herriko lur zatiak emanez ordaintzea erabaki zuten, baina aurrez jaso nahi zuten lurraldea seinalatuz txostena aurkeztea derrigorrezkoa zuten. Eskatutako lurraldea emango zieten, herriarentzat kaltegarria ez bazen.

1972

Sagardo Egunak 40 urte.

Baserritarren eguneko Sagardo Txapelketak 40 urte beteko ditu aurten. Santio egunez egin ohi izan dute aurreko urteetan, baina aurten Santio laneguna da eta hilaren 22ra aurreratu dute.

Iturria: Azpeitiko efemerideak.

Herria historian zehar liburua.

Egilea: Imanol Elias Odriozola.

Argitaratzailea: Uztarria Kultur

Koordinakundea.*

www.uztarria.com
azpeitiko ataiye

eguneko albisteak irakurleen erantzunak eguneko argazkia bideoak blogak inkesta agenda bitxikeriak
'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak, hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... uztarria herri aldizkari denak; PDF formatoan ere bai eguneko efemerideak gida komertziala...

sartu sarean, eta hartu parte egunero 7.000 orrialderen bisita



Metabolismoa

Elikagaiek gure gorputzaren barruan izaten dituzten aldaketa multzoa da, sartzen direnetik hezabatu arte. Bi forma ditu: basala eta osoa. Basala bizi irauteko behar den gutxienerako energia da; lanik egin gabe, egonean, 20 gradutan, jan gabe (1.500 kaloria egunean). Metabolismo osoa, berriz, aipatutakoa gehi jaten, lanean edohotzaren aurka borrokatzen gastatzen duguna (2.500-3.000).

Prozesu konplexu hau sartzen ditugun elikagaien eta arnasten dugun oxigeno bitartez etortzen da; hormonien, entzimen eta bitaminen kontrolaz. Gure sentimenez elikagai zapoetsuak eta atseginak eskatzen dituzte, baina liseriketa aparatuak zarpailkeriaz jokatzeko du. Elikagaia faringera heltzean, ez dago inolako alderik txuletaren eta saltxitxoaren artean. Muga hori igaro ondoren garrantzia duen gauza bakarra balio elikagarria da.

Dena dela, gehiegizko kaloriak barnatzen baditugu, biltegiak egiten ditugu, geroago erabiltzeko. Metabolismo hori aldatu daiteke; tiroide glandulak gehiegi funtzionatzen badu, metabolismoa areagotzen da, pertsona horiek urduriago sortzen dira, etengabe argalduz. Hipotiroidismoa duena putzu egiten da, likidoen putzua sortzeraino, eta kasu larrietan 'idiozia' sortzen da.*



||||| **Julian bereziartua** |||||

OLATZ GALARRAGA Larrañaga hoteleko harreragilea



1. Nongo jendea dator?
Kataluniarrak, asko.

2. Krisiak eragin du?
Egonaldia gosariarekin hartu ala ez erabakitzeke ateratzen dituzte kontuak.

3. Zer ikustera datoz?
Kostaldea. Hemen hartzen dute ostatu Donostia eta

Bilbo erdian gaudelako, eta ditugun prezioengatik.

4. Zer egonaldi mota egiten dute?

3 bat egun, familiak eta bikoteak. Astegunean, batik bat, merkataritza-agentek.

5. Errepikatzen al du egonaldia jendeak?

Valentiako familia bat urtero etorri ohi da.

6. Zerk harrizten ditu bisitariak?

Berdetasunak, jatekoak...

7. Jendeak zuen berri nola izaten du?

Internet bidez.*

📧 Ainitze Agirrezabala

 **lentzeria
mertzeria**
jose artetxe, 16

 **ostadar optika**
OPTOKAK - OPTOMETRISTAK
Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

 **Aiertza
Autoak**
 943 811 915 - AZPEITIA
aiertzaautoak@telefonica.net

SEGUROS BILBAO | Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK:

- ETXE ASEGURUAK
- AUTO ASEGURUAK
- DENDA ASEGURUAK
- BIZITZA ASEGURUAK eta abar.

AURREZKIENTZAT PRODUKTU INTERESGARRIAK

Joxe Migel Muguruza
(Urola Erdirako agente eskusiboa)

Tel: 652.776.909
jm.muguruza@segurosbilbao.com

DI-DA diseinua
zure lorategi edo terrazara diseinua
90€ren truke
www.kimubat.com



Mesetako usadioa

Zezen-plaza dotore jantzi ohi dute Saninaziyuetarako. Meseta torilak, ordea, garai batean zuen arrakastarik ez du egun. Hala diote hainbat herritarrek. 📌 A. Agirrezabala

Z

ezenzaleak zirelako batzuk, baina beste asko eta asko zezenketen aitzakian plazan sortzen zen parranda giroagatik joaten zen meseta torilera. Duela hogeitaka urte leporaino betetzen zen meseta torila; gero, asko hoztu zen kontua; eta, gaur egun, usadioa San Inazio bigarrean ari da pixkana errotzen eta indarra hartzen.

Saninazioetan zezenketetara joan zaleak dira Xanti Jimenez eta Alex Gurrutxaga, baina harmailetara pasatu aurretik, gazteago zirela, meseta torilean bizitako makina bat pasadizo dute Uztarriari kontatzeko. "Bezperan gaupasa eginda, San Inazio egunean arratsaldeko ordubiak aldera jaiki, zeozer jan eta lauretan Pikua tabernan izaten genuen hitzordua;

lagun dezente elkartzen ginen, 20-30 inguru bai", hasi dira garai haiek gogoratzen. "Eguzkiak gogor jotzen du zezen-plazan, eta moztu arazi galtza zaharrak eta nikia amari, txapela jantzi eta joaten ginen. Sekulako artsenala eramaten genuen, bidoi handiak leporaino beteta: zerbeza, kalimotxoa, izotza... jatekorik ez". Zezen-plazarako bidea txarangarekin



1986ko abuztuaren 1. Meseta torileko taldea Victor Mendes toreatzaile portugaldarrarekin. Beobide, lehen ilaran, erdi-erdian. ||| Jabier Beobide

paseoan egiten bazen ere, euren koadrila plazara ordubete lehenago joan ohi zen lekua hartzera, eta "txarrena" hura izaten zela diote, "plazarako bidea". Bidoiek "sekulako pisua" izaten zuten, eta bi laguneren artean "eraman ezinda" aritzen ziren.

Garai batean, zezenketak San Inazio egunez, San Inazio bigarreanean eta abuztuaren 2an izaten ziren; gaur, berriz, San Inazio bezperan, egunean eta abuztuaren 1ean. 15 urte zituztela hasi ziren joaten lagunartean meseta torilera. Bost bat urtez joan zen Jimenez, 20 urterekin tabernan lanean hasi zen arte. Gurrutzagak, ostera, 25 urte bete zituen arte jarraitu zuen joaten. "Egunero joaten ginen gu. Zer ez genuen eramaten! Irina, kola-kao hautsa, anila, txanpaina... Eta, gero, toreatzaileei botatzeko oilarra batean, konejua hurrena, eperra, meloia... edozer eramaten genuen".

Hirugarren zezena erretiratzen dutenean bandak zortzikoa jotzen du, duela urte asko Enparantza Nagusiko nobilladetan hil zen Debako toreatzaile baten omenez. "Plaza guztia zutik jartzen da, serio-serio, egundoko polita izaten da. Hura bukatzean hasten zen han parranda, generoa astintzen hasten baikin. Buila eta festa handia" izaten zutela adierazi dute, baina toreatzaileak lanean ari ziren uea "errespetatzen" zuten.

'La mula del norte'

Bat bestearen atzetik, hamaika anekdota dituzte kontatzeko: *La gula del norte* iragarkia egoten zen plazan, eta urte batean, g-ren gainean m jarri eta *La mula del norte* geratu zen idatzita. Lehenbiziko zezena pasatu zen arte inor ez zen konturatu, baina gero bai. Jaungoikoaren izenean azkar kentzeko hura agindu ziguten. Lotiterekin pegatu zuten ez atzamarrekin kendu ezinda han aritu ziren. Beste behin, gazte batek joaten zen lehen urtea zuen eta aurreneko aldiari amorratua izaten zen kaka guztia hari gainera botatzea. Gaizki hartu zuen, eta hurrengo egunean behi-txixa ekarri zuen sulfatorean, baina ez zioten zezen-plazan sartzen utzi. Belarria lortuta toreatzaile bat plazako bira egiten zihoan batean, berriz, meloia bota zioten meseta toriletik eta ia-ia jo zuen".

Zezenketak bukatzean, plazatik atera eta txarangarekin kalez kale ibiltzen ziren. "Etxeetara ura botatzeko eskatzen genuen, eta balakoietatik baldekadak botatzen zizkiguten. Ar-tzubiko errotan ere freskatu ederrak hartzen genituen. Toretzaileek belarria lortzen zutenean guri botatzen ziguten eta han ibiltzen



1. Beobide lehen ilaran, galtza motz urdinekin. 2. Gazteak meseta torilen, irina eta edaria astintzen. 3. Xanti Jimenez eta Alex Gurrutzaga, zezen-plazan, meseta torilen.

ginen, belarria elkarri pasatzen, eta buztana ere bai. Buztan eta guzti joaten ginen gu kalera. Ahoan hartuta ere bai buztan hori, eta tabernetan bidea ederki irekitzen zigun jendeak".

Beraien gazte garaian meseta torila "bete" egiten zela diote: "150-200 lagun izaten

ginen. Gero, galduz joan da ohitura. Ez zen espektaukulu merkea, baina guk zaletasuna bagenuen. Garai hartan zezenketetara joateko joera handiagoa zuten gazteek, eta oro har jendeak. Orain gaztea ez da joaten zezenak ikustera, orain zezenketen inguruan beste kontzeptu bat dute".*

Ohitura eta giroa 'berrindartu' nahi

116 urterekin hasi eta 25 urtera arte joan zen meseta torilera Jabier Beobide. Sarrerei prezio berezia jartzeko zezenzale batzordekoekin bilera egin eta harmaila haiek betetzeko "konpromisoa" hartzen zuten. "200 bat lagun elkartzan ginen, eta edaria lepo eramaten genuen, bidoi handietan. Sierbetatik oiloa erosten genuen, toreatzailearen batek belarria moztzen zuenean botatzeko".

Zezenketen munduan egon daitezken "fase guztiak pasatu" dituela dio: "meseta torilean egotetik harmailletara pasatu nintzen; zinegotzi bezala ere urteetan joan izan naiz plazara eta orain zezenzale-batzordean nago. Jendeak esan izan du meseta torila kentzen saiatu zela Udala, baina kontua da, ohitura gainbeheran joan zela eta meseta torilera hamar lagun baino ez zirela joaten. Sekulakoa muntatzen zuten, eta meseta

torila hutsik geratzeaz gain, inguruko sarrerak ez ziren saltzen. Ondorioz, gu batzordean sartzean, duela lau bat urte, giroa berrindartzeko helburuarekin, gazteei sarrerak debalde ematen hasi ginen. Gainbehera horren arrazoia, beraz, ez da sarrerak garestiak direla; kontua da, zezenketen gaia politizatu egin dela. Ez dago ikusita festa herrikoï edo abertzale bat bezala; festa nazional eta espainol bat bezala baizik. Nik ezagutzen dut zezenzalea den ezker abertzaleko jendea, baina ez dira nabarmentzen. Ezker abertzalekoa eta taurinoia izateak zera ematen diote... Jon Idigoras, HBkoa, nobilleroa izan zen. Zezenketak ez datoz Espainiatik, jatorria Nafarroan dute. Espainian bandera espainola ikusten duzu zezen-buruarekin; eta Iparraldean zezenketetan zezen-burua duten ikurrinak ateratzen dituzte. Egin kontu".*

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

FARMAZIAK (ABUZTUA)

EGUNEZ

1-3-4-5-7-8-10-11-12-14	2-6-9-13-15-18-19-20-22-24-27-30	16-17-21-23-25-26-28-29-31
Aranburu (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).
943 811 350	943 811 274	943 080 258

GAUEZ

1-2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-20-21-22-23-24-25-26	13-16-18-19	14-15-17	27-30	28-29-31
Jacome (Azpeitia).	Jaen (Azkoitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).	Gisolsola (Azkoitia).
943 080 258	943 850 660	943 852 989	943 851 966	943 851 235

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Abuztuaren ??an izango dute hitzordua, ??tik ??ra, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzua	

943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 **UDALTZAINGOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** ||| Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 **ZAPO TXOKO** ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



ESKURA IZATEKO.

Beti dago ondo herrian horrelako zerbitzua badirela gogoraraztea. Festa egunak datozela-eta, preserbatiboak eskura izateko argazkiko hainbat makina daude herrian.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

LUIS AIZPURU 'ZABALETA'

autobus-gidari ohia

“ osasunak Lagun dezaLa beste urte on batzuetan ”

40 urte errepidean lan eginda, jubilatu berri da. Zumaiako hondartzan, ur-ertzean paseatuz lasai bizi da orain. 📎 A. Agirrezabala

Zer moduz bizimodu berrian? Ondo. Lasai bizi gara orain, patxadan. Eguerdia ona bada gosalduek ondoren Zumaiako Santio hondartzara joaten naiz, ur-ertzean pasiatzera, eta aspertzan etxera. Gainontzean, baratza badugu, klase guztietako generoa ereiten dugu, etxerako lain. Ganadurik ez dugu; oilaskoak eta untxiak bai. Osasunak lagundu dezala beste urte on batzutan.

Zenbat urte egin dituzu errepidean? Urte asko, 40 pasa. Azken 30 urteak autobusarekin, eta aurretik kamioiarekin Espainia guztian ibili nintzen altzariak garraiatzen. Autobusarekin lanean Escuderorekin hasi nintzen, eta gero, duela dozena bat urtetik, Ula-ciarekin. Hasieran, Zestoako buelta egiten nuen: gerora, berriz, Errezil eta Matxinbentakoa. 40 urteotan errepidean beldurtzeko kilometro pila egin dut! Lehen, gainera, oraingo kontrolik ez zegoen, eta ibili eta ibili... Zortea izan dut; ez dut sekula istripurik izan.

Despedida ere egin dizute... Bai, atzo azkena. San Kristobal zen atzo, txoferren eguna, eta nagusiek eta elkarrekin lana egin dugun Azpeitiko txoferrak bazkaria


egin genuen, soziedadean. Txapela brodatuta eta koadro bat oparitu dizkirate. Urrestillan eta Damason ere egin zidaten halako omenaldi txiki bat ikasle eta gurasoek.

Urte guzti hauetan umeak kozkortzen ere ikusi dituzu.

Bai, txiki-txikitatik, hazten eta hazita, denak ezagutu ditugu horiek. Esateko ziur ez nago, baina nirekin ibilitako umeen seme-alabak ere ibili izango ditut. Makina bat pasadizo bai umeekin. Pasadizoan denei sudurretik hel-tzen nien. Gero, duela lau bat urte, Urrestillako Maialen Watzingerrek niri buruzko narrazioa idatzi eta R.M. Azkue saria irabazi zuen.

Eskola-umeak ibiltzeaz gain, zer beste bidaia egin duzu autobusarekin.

Urte mordoxka batetan jendea eskiatzera eraman genuen Granadara, Sierra Nevada-ra, Aste santuetan. Parisera ere bai, bost-sei urtean erabat. Han gida bat hartu eta Parisko gazteluak, Versailles, teatroak, Euro Disney... bisitatzen genituen. Baina hango oporrak ez ziren oso ederrak izaten; lan asko, mugimendu asko izaten zen. Makina bat baztar ikusi dugu guk gure denboran.*



1

1. Etxeko atarian, Watzingerren narrazioa jasotzen duen liburuarekin. 2. Urrestillan egin zioten omenaldiko argazkia. 3. Azken bidaia.



2



3

Hiru egun

Astelehena. Senarrak ezin du egoera eraman. Aspaldi du loa hautsia, galdua du pisua ere, lehen pisu handia ez zuenak. Nabarmena du ondoez fisikoa. Medikuari joan zaio. "Ez nago ondo. Nire andreak... Nire andrea, izan ere... Nire andrea...". Medikuak, orduan, bekozkoan: "Zurekin haserretzen ari naiz. Andrea gora eta andrea beheara ari zara, eta zu? Zer esaten didazu zeuri buruz? Zer nahi duzu? Adarrak jarri dizkizu, gordin esateko, eta zer zabilta zu zeure burua errudun egiten?". "Beraren minbiziaren kulpak dudala, partez behintzat, behin baino gehiagotan esan dit. Eta nik sinetsi. Nik berarekin ondo bizi nahi dut, besterik ez. Maite dut, ikaragarri". Medikuarenetik irten denean baja agiria eta depresioaren kontrako pilulak erosteko errezeta ditu aldean. Gainera, medikuaren psikologoaren telefonozenbakia. Ona omen. Lehendik ere psikologoarekin dabilta andre-gizonak, baina beste psikologo horren iritziak, kontrasteak, ez diola kalterik egingo esan dio medikuak. Gai-xoak kontsultan utzi du, betiko, andrearen minbiziaren kulpak zekarkion karga pisua. Trankil joan da etxera, lasai eta umoreko. Mezua du buruan, andrearentzat. Gauean, andrea lotan, gizona esna, biak ohean etzanda, muxu eta muxu ari zaio gizona, "maite zaitut" behin eta berriz, andreak entzun ez badu ere.

Asteartea. Medikuaren psikologoari txanda eskatu eta harekin da biharamunean. Kontatu dio. Gaixotasuna. Sendabidea. Meditazioa. Irakaslea eta andrea. Maitasuna. Sexua. Andrea bi maitasun bizitzen. Gizonaren ondoeza. Maitalearen tartea. Esklusibotasuna. Monogamia poligamia... erabateko desoreka hitz eta ekintzetan. Mina eta negarra eta ondoez fisiko-psikologikoak. Maitaleari ezetz esateko ezina. Sufrimendua. Kalbarioa. Estresa. Antsietatea... Andrearentzako mezua irakurri dio gizonak psikologoari. Baietz, ontzat eman du.




|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Mina eta ezina ikusi dizkio gizonak andreari. Galdezka segitu du andreak, eta gizonak esatea erabaki du

Eguerdiari, andreak ezberdin ikusi du gizona. "Zer ari zara? Gurekin bazkaltzen, baina beste mundu batean zaude". Antzeman dio andreak. Ezagutzen du. Intuizioa. Pertzepzioa. Zernahi. Baina igarri dio zer edo zer dabilena. "Jakingo duzu, maitea, eta maitasunez jakingo duzu. Ez da txarrik". Andreak badu susmoa: "Bazoaz? Etxetik alde egitea erabaki duzu?". Lehenengoan asmatu du andreak. "Jakingo duzu, maitea. Baina ez zaitut utziko, hori segurua". Gauez, bezperako errituala errepikatu du gizonak.

Asteazkena. Gauean, umea erretiratu eta sukaldetan lotu dira andre-gizonak. "Zer ari zara?", andreak gizonari. Mina eta ezina ikusi dizkio gizonak andreari. Galdezka segitu du andreak, eta gizonak esatea erabaki du. Badoala, egun batzuetan etxetik joatea erabaki duela, horretan ibili dela aurreko hiru egunetan. Bere bidea egin behar duela, eta andreak ere

berea egin behar duela. Barruak esaten diona entzun, baina egoera hura ez dagoela onean eramaterik. Agur, aldi bateko bada ere, adio. ✘



HOBETUZ

V-DRIVE-a, GURPILDUN AULKIENTZAT LAGUNTZARIK ONENA



HOBETUZ-en PROBATU DEZAKEZU



ETORRI ETA AZALDUKO DIZUGU

ABUZTUAN ERE HEMEN
IZANGO GAITUZU,
ZURI LAGUNTZEKO PREST.

Damaso Azkue Plaza, 1 behea
20730 AZPEITIA (GIPUZKOA)
943 810147 - 689360822

www.laguntzateknikoak.com

landeta
brikodenda

eurotex



PINTURAK - BURDINDEGIA - BRIKOLAJEA - ELEKTRIZITATEA - SEGURTASUN BABESA
GILTZEN KOPIAK - PARKET-AK - GARBIKETARAKO MATERIALA - OSAGAIK



Landeta Hiribidea, 8 - Azpeitia
Tel.: 943 81 25 66 • Mug. 607 58 89 13
www.landetabrikodenda.com



jarraitu gaitzazu facebook-en



Ukabi Informatika | 943 15 01 01



innovadental

Bisita gaitzazu:
José de Artetxe kalea, 5
(anbulatorioaren ondoan)
20730 **AZPEITIA** (Gipuzkoa)

Edo deitu:
943 02 59 55



innovadental

implanteak

Euskadin, 2.000 INPLANTEtik gora
*Eskatu presupuestoa eta kontsultatu
gure finantzaketa!*

hartz-klinika
AZPEITIAⁿ